

BERRIGARA

92. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, maiatzak 19

**UDAL
HAUTESKUNDEAK**
alkategaiekin
berriketan

*Simon Arrieta
zeramika taldea*

Bustina lantzen

OPEL VECTRA BERRIA

merit

GUTXIK EMATEN DUTE
HAINBESTE HAIN GUTXIREN
TRUKE.

OPEL BANATZAILE OFICIALAK,
ESPERIENTZIARIZ ONENAK.

OPEL

**TALLERES
OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46



ELKAR

ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA



Altzarien dekorazio eta erakusketa

- BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJIARI EGOKITUTA
- EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URIK!!
- LEIHO TERMOAKUSTIKOAK
- ATEAK
- ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK

AROZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefona eta Faxe: 76 54 91

**ZATOK GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA**



Argitaratzailea:
JARDUN Elkarte.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:
Eneko Azkarate

Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga

Maketazioa:
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil

Publizitatea:
Alex Azkarate

Harpidetzak:
Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:
Gorka Elorza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien
Iñaki Eraña

Komikiak:
Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro
Alex Ugalde
Unai Azkarate

Banaketa:
Txantxangorri taldea

Tirada:
3.900 ale.

Inprimategia:
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:
BERRIGARA

Lege gordailua:
SS 50/91

ISSN:
1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du


Z E B E R R I D A ?

ROKE IÑARRA

Antzuolako alkatea

- Gaur (ostegunean) deklaratu egin duzu Antzuolako Udalak ejerzitoarekin ez kolaboratzeagatik.

- Bai, 1987an Jarraiko mozio bat onartu zen Plenoan, ejerzitoari edozein laguntza (tailak etab.) eta udal terrenuen uztea (maniobretarako adibidez) ukatuz. Ondoren Estatu-ko abokatuak akordio hura errekurritu zuen nuloa zela adieraziz eta Nafarroako Justizia Epaitegi Gorenak ere ilegaltzat jo zuen. 93an akordio bera ratifikatu genuen Plenoan eta Euskal Herriko Epaitegi Gorenak atzera bota zigun berriz ere. Ondoren, desobedientzia ekin-tza horrengatik deklaratzera deitu digute hainbat alkateri.



- Zer adierazi diozu epaileari?

- Herriaren nahia jasotzen duen erabakia hartu genuela esan diogu. Epaileak desobedientzia egon dala ikusten badu epaitu egingo naute. Aurrerantzean zein jarrera hartuko dugun? Ez dakit Udalbatza berria osatzen denean ze postura hartuko den.

"Soldaduzkaren kontuan herriaren nahia jasotzen duen erabakia hartu genuen"

I T U R R I O N E T I K

Domingotarrek utzitako liburuak berreskuratuko ditu Udalak

Bergarako Udalak domingotarrek utzitako hainbat liburu berreskuratuko ditu. Seminarioko liburutegian domingotarrak hona etorri baino lehenagokoak (1880 aurretikoak) ziren liburuak aurkitzen ziren baina, gaizkiulertu bat medio, Salamancako San Esteban konbentura eraman zituen Seminarioan geratu zen azken domingotarrak. Orain, Erret Mintegiko fondoa osatzeko, Udal artxiboko liburutegira eraman dira. Berreskuratutako tomoak 1694 eta 1846 bitartekoak dira. Frantsesez idatzita, zientzietako espezialitate ezberdinei buruzkoak dira gehienak.

E S A N D U T E

"Bergarako zalegoa hotza dela esango nuke. Taldearen emaitzen arabera erantzuten du normalean eta egoera zailenetan laguntza falta somatzen dugu Agorrosinen".


IÑIGO ZAITEGI
B.K.E.ko presidentea
ERREALZALEAK

"Etiketak merkatuan saltzeko beharrezkoak dira, pintura eta artea merkatua baitira".

PELLO ALBERDI
Pintorea
GOIBEKOKALE
ELGETAKO
ALDIZKARIA

"Atzoko egunkarietan agertutako notizia atseginen artean, gero eta urriagoak, elkarri mokoka aritu ondoren emazteak ahoan eman zion ostikoak eragindako zauriak sendatzeko Jose Amedo eritetxeratua izan zela irakurri zitekeen".

MARTIN GARITANO
Kazetaria
EGIN



ESTALLIDO

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



Y EN NOCHEBUENA...SE ARMO EL BELEN

Igandea: 11.30.



LA MUERTE Y LA DONCELLA

Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ **Wolfgang Petersen** zuzendariak (*En la linea de fuego*) orain ezaguna egiten ari den *Ebola* birusari buruzko filmea egin du. *Sam Daniels* (**Dustin Hoffman**) koronel medikua Afrikara bidaliko dute birus horren zabaltzea aztertzeraz. Horren arriskua ikusirik, birusa Estatu Batuetara ez zabaltzeko ahalegin guztiak egingo ditu baina horretarako uste baino oztopo gehiago aurkituko ditu bidean...

▼▼ Betidanik *matinaletan* fijoak izan diren **Terence Hill** eta **Bud Spencer** aktoreek protagonizatutako filma. Oraingoan, bakeroenak egiten, bere ohizko kolpe eta borroka eskeiniko dizkigute. Aitak *Travis* (**Hill**) eta *Moses* deitu ditu (**Spencer**) berarekin Gabonak igarotzeko eta kostako da bai bi anaiak elkartzea.

▼▼ **Ariel Dorfmanen** antzerki lanean oinarriturik, **Roman Polanski** zuzendariak (*Lunas de piel*) torturatzaile eta torturatuen inguruko parabola landu du bere azken filmean. Hegoamerikako herrialde batean kokatuta, *Paulina Escobar*rek (**Sigourney Weaver**) bera torturatu zuen gizona ezagutuko du, mendekuari hasiera emanez.

Deiak

▼ **1943**ko kintoen anaiarteko eguna bihar larunbata. Meza San Pedron eta afora Antxonin. Izen ematea Azkarate estankoa.

▼ **60 urte** aurrean egiten dituzten anaiarteko eguna igandean. Izen-ematea Lazpiur harategian, Poligonoko supermerkatuan eta Azkarate autozerbitzuan.


▼ **1936**an jaiotako bergarren anaiarteko eguna igandean. Izen-ematea (2.000 pta.) Antxonin eta Eusebio II tabernetan.

▼ **Udal Bandaren** kontzertua igandean 12.30etan Lasarten.

▼ **Argazkiak.** *Bergara Hiria* argazki lehiaketarako lanak entregatzeko epea asteazkenean amaituko da.

Ogia


▼ **Igandea 21:** Ogizun.



GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 19:** Puy/Azkoaga.
- ▼ **Larunbata 20:** Guallar/Español
- ▼ **Igandea 21:** Guallar/Corcuera.
- ▼ **Astelehena 22:** Estella/Irizar.
- ▼ **Asteartea 23:** Mozos/Amezua.
- ▼ **Asteazkena 24:** Camacho/Ruiz.
- ▼ **Osteguna 25:** Puy/Morales.

ITXASMENDI



ERREKADISTA

Barrenkale, 36
BERGARA

☎ 76 50 64 / 76 13 61

EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE, ARETXABALETA, ESKORIATZA eta OÑATIRA.

IZADI PILI GISASOLA

Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83



Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Simon Arrieta, 3

OINETAKOEN KONPONKETA

Gorka

Mota guztietako konponketak Bizkortasuna eta *garantia osoa*

Zeramika lanak ikusgai

Simon Arrieta taldearen lanak Kultur Etxean

Gaurtik maiatzaren 28ra arte Simon Arrieta zeramika taldearen erakusketa ikusgai egongo da Kultur Etxean. Orain 25 urte sortu zenetik bertako kidea izan den Maria Jesus Mancisidorrek taldearen nondik norakoak azaldu dizki-gu.

- Zenbat bazkide zarete taldean?

- 30 bat izango gara. Ia egunero bustinarekin lan egitera, berriz, 9 bat lagun biltzen gara. Zabalotegi dorreko atzekaldean daukagun lokalera goizez zein arratsaldez etortzeko aukera dago. Interesa duena etor dadila; izena eman eta hilabete batez probatzeko aukera dauka. Ondoren bazkide egitea erabakitzen bada lokalaren giltza ematen zaio eta hilabeteroko kuota 300 pezetakoa da. Orain jende gaztea botatzen dugu faltan. Egia esan, ikasten ari direnez, ez dute denbora gehiegirik izaten baina nik dei bat luzatu nahi nuke hona etortzen animatzeko.

- Edonork ikas dezake bustinarekin lan



Simon Arrieta zeramika taldekoak Zabalotegin biltzen dira.

egiten?

- Bai, guk ematen ditugu ikastaroak kanpotik monitoreak ekartzea nahiko garestia izaten baita. Jendeak jakin dezala bustinarekin gauza mordo bat egin daitezkeela, ez bakarrik ohizko platerak eta tazak. Eskultura ere egin daiteke: figuratiboa, errealismoa,

esmalteak... bustinak aukera haundiak ematen ditu. Honekin lotuta, bustin mota bakoitzak (bustin primarioa, gresa, erregorra... etab.) tratamendu berezia eskatzen du. Datu bat emango dizut: Bergaran bada eskultoreen talde bat eta 8 partaideetatik 4 Simon Arrieta talde honetatik irten ga-

"Jendeak jakin dezala bustinarekin gauza mordo bat egin daitezkeela, ez bakarrik ohizko platerak eta tazak"

ra. Guri lanerako afizioa duen jendea interesatzen zaigu batipat. Edonork ikas dezakeen? Bueno, marrazten jakiteak eta honelako lanetarako eskua izateak asko laguntzen du.

- Zenbatero egiten dituzu erakusketak?

- Urtean behin, batez ere urtean zehar eginiko lana azaltzeko. Oraingo erakusketa honetan German Amurrio, Ainhoa Bollar, Eneida Larrañaga, Aintzane Linazisoro, Martin Linazisoro, Nerea Madariaga, Marivi Peña, Javier Ugalde eta nere lanak egongo dira ikusgai, 20 bat lan guztira. Orainarte jendearen erantzuna oso ona izan da. Egiten dugun lana apreziatzen dute nahiz eta jende askok eta askok ez gaituzten ezagutzen.

Bestalde, beste lan batzuk ere egiten ditugu urtean zehar. Santa Marina-ko zenbait iruditan, ermita batean eta Sierbetan esate baterako errestraurazio lanak burutu ditugu. Subentzionatuta gaudenez, ezin dezakegu industri baten moduan funtzionatu egiten ditugun piezak dendei salduz.

IGARZA

**MERZERIA
LENZERIA**

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

ileapaindegia

eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

Ipintza bizirik orain

Duela lau hilabete honako idazki hau eraman zen Udaletxera:

"Eusko Jauriaritzako Hezkuntza sailarentzat Jose Joaquin Camacho Loidi arkitektoak egindako Lanbide Hezkuntza Institutuaren (U. 35-2 Eskola gunea. Matxiategi. Bergara) planoetan agertzen denez, zordanbidea deritzon gunea dago, Ipintzako iturrirako betiko igarobidea dena.

Ipintza institutua eraiki zen garaian hego eta hego-ekialdeko limiteak izen bereko (Ipintza) iturrirako igarobidea errespetatuz ezarri ziren.

Beraz, argi dago udalak ez daukala zordanbideari dagokionean Eusko Jauriaritzako Hezkuntza sailaren jatorrizko planak aldatzeko eskubiderik, horrela bergarrek historikoki duten eskubidea bortxatzen dutelarik, Ipintzako iturrirako bidea nahi duten unean eta moduan eta inolako oztoporik gabe, beti erabili izan den bezala erabiltzekoa, alegia.

Horregatik idazki honen bidez honako hau eskatzen diot UDALari:

Eusko Jauriaritzaren jatorrizko planak alda ez ditzala edota bestela gertatuz gero, idazki hau auzitegiara jo aurretiko kexatza hartua izan dadila, nire eta bergarar guztion eskubidea delakoan.

Udalari idazki hau onartu eta gure

eskubidea aitortu ondoren aipatu institutuaren jatorrizko planoak alda ez ditzala eskatzen diot".

Benetan iraingarria iruditzen zait lau hilabete pasatu eta gero oraindik inolako erantzunik jaso ez izana eta gaur egun Ipintzako iturrira ezin joana, horrela Udalak Eusko Jauriaritzak berak aitortutako bergararren eskubideak zapalduz.

R. B. 15.363.106

AUZOKIDE TALDE BATEN IZENAN

Gusto txarreko deiak

Sexu ohiturei buruzko azterketa bat egiten ari dela aitzakitza hartuz, Berrigararen izenean norbait telefono deiak egiten ari omen dabil. Berrigarak argi eta garbi utzi nahi du ez dabilela sexuari buruzko azterketak egiten. Beraz, norbaitek Berrigararen izena erabiliz gai horri buruz galdetzeko hots egiten badizue, jakizue ez daukala Berrigararekin zerrikusirik.

Lehen ere ibili omen da norbait horrelako deiak egiten. Horregatik eskatu nahi diogu utz diezaiola behingoz, bestela neurriak hartu beharko ditugu eta.

BERRIGARA

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ

◆ **Udaberriko kontzertua**

Datorren ekainaren 11n Musika Eskolaren Udaberriko Kontzertuaren zazpigarren edizioa izango da. Bazkarirako txartelak Musika Eskolan bertan eskuratu daitezke maiatzaren 31ra arte.

◆ **Komite Internazionalistak**

Euskadiko Komite Internazionalistak taldeak aurtengo udan Palestina, Guatemala, Nikaragua, El Salvador eta Kubako errealitatea ezagutzeko bidaiak antolatu ditu. Interesatuak bidaiei buruzko prezioak eta argibideak 34 04 04 telefonoan jaso dezakete.

JAIOTAKOAK

- Mikel Zulueta Prat**
Maiatzak 9
- Maitte Zulueta Prat**
Maiatzak 9
- Cecilia Dulanto Arriola**
Maiatzak 10


HILDAKOAK

- Clara Valor Merchan**
Maiatzak 11, 51 urte
- Jose Miguel Lizarralde Gisasola**
Maiatzak 8, 49 urte
- Pablo Gallastegi Zabaleta**
Maiatzak 15, 83 urte
- Evaristo Albeniz Barragán**
Maiatzak 16, 70 urte
- Pilar Agirrezabal Lamariano**
Maiatzak 16, 82 urte

Udal Frontoiko berrizte lanak ekainaren 7an hasiko dira

48 milioi aurrekontuarekin, irailerako amaitzea espero da

Udalbatzak, aho batez, Udal Frontoiaren berrizte lanak Construcciones Arregiri adjudikatzea erabaki zuen aurreko ostiraleko ez-ohizko Plenoan. Frontoiaren berrizteari jaien ostean, ekainaren 7an ekingo zaio eta, printzipioz, aipatutako lanek 48 milioi pezeta inguruko aurrekontua izango dute. Egin beharreko lanak beharrezkoak dira Frontoia Eusko Jaurlaritzaren Joku eta Ikuskizunen Araudiari egokitu eta bertan, segurtasun guztiakin, edozein ikuskizun antolatu ahal izateko.



Komun berriak, Ibargarai aldera irteera, markagailu elektronikoa eta beste hainbat berrikuntza lan egingo dira Udal pelotalekuan.

San Martinetarako prest

Anselmo Iñurrategi bergarar arkitektoak landutako proiektorearen arabera, besteak beste, Ibargarai aldera emerjentiako irteera bat, Frontoian kontraktantza, komun berriak, sarrerako ateen aldaketa eta pasiloen zabaltzea edota markagailu elektroniko bat jartzeko lanak egingo dira obrak hasi eta hurrengo 5 hilabeteetan. Lanak irailaren 16a baino lehen amaituta egotea

espero da, San Martinetako jaietan pelota jaialdiak antolatu ahal izateko. Bien bitartean, Frontoian jokatu den azken txapelketa Pentekoste jaietan iragarrita dagoena izango da.

Eskutaldeak eta Udalak orain gutxi sinatu zuten kontratoaren arabera, Udalak berrizte lanen kostoa ordainduko du eta Eskutaldeak, berriz, 200.000 pezetako errenta ordaindu behar-

ko dio hilero Udalari.

Lazo urdina

Azkenik, ostiralean, Pleno amaieran, Victoriano Gallastegi alkateak Udal Gobernu Batzordeak lazo urdina Udalteko balkoian jartzeko erabakia hartu zuela jakin arazi zuen. Lazo Udaltean jarri da Jose Mari Aldaia enpresari donostiarren askatasuna aldarrikatzeko.

MEMESA

ARRASATE 79 42 22 ARETXABALETA



SFK

◆ DYaren diru eskaera

Deba Garaiko DYak bere urteroko diru eskaera egingo du larunbat eta igandean. Kuestazioaren helburu nagusia urteko aurrekontuari aurre egin ahal izateko dirua jasotzea da.

◆ Jaiak Toki-Ederren

Astebukaera honetan Toki-Ederreko jaiak ospatuko dira. Larunbatean, 10etan etxafleroak, 11etan haurrentzako ginkana, ordubatean solasaldi herrikoia, 4retan mus txapelketa (izenematea orduerdi lehenago itxiko da), 5etan kukañak, 7etan buruhaundi eta erraldoiak, 8etan haurren tanborrada, gaueko 10 t'erdietan suzko erroberak eta 11etan Hor-Konpon taldearen dantzaldia izango dira. Igandean 9etan diana, 10,30etan kalejira, ordu berean meza San Antonion, ondoren salda eta txorizoa, 12etan jubilatuentzako luntxa Aizepe elkartearen, 14,30etan herri bazkaria eta 5etan txupinazoa.

◆ Borroka eguna

Aurreko ostiralean KASEk deitutako borroka egunean jende ugari hartu zuen parte antolatutako bi manifestazioetan. Istiluak ere izan ziren egunean zehar: ezezagun batzuk su eman zieten herriko hainbat kontenedoreri eta Plazako Kutxara koktel molotova jaurti zuten.

◆ Evaristo Albeniz hil zen

Evaristo Albeniz sindikalista historikoa asteartean hil zen 71 urte zituela. Francoren garaian gartzela ezagutu zuen diktaduraren kontra eta langileen alde borrokatzeagatik. Doluminak adierazi nahi dizkiegu familairtekoei.



Jolas zaharrak erretiratu eta berriak jarriko dira datozen egunetan.

Haurrendako jolas berriak herriko zenbait tokitan

Murbipark-i adjudikatu zaio jolas gunek jartzea

Gobernazio Batzordeak Bilboko Murbipark enpresari adjudikatu dio haurrendako jolas guneen erakuntza. Murbiparkek aste honetan bertan jolasak jartzeari ekin dio herrero hainbat lekutan eta, printzipioz 25 eguneko epea eman bazaio ere, egun gutxi barru lanak amaitzea espero da. Guztira, 10 proiektu aurkeztu ziren Udalak konbokatutako lehiaketara eta guztiak aztertu ondoren Murbiparkena aukeratu zen. Baldintza orokorrak eta jolasak kalitate eta kolore aldetik kontutuan izanda, Murbiparkena proposamen onena izan da Gobernazio Batzordearen ustean.

Murbipark enpresak aurkeztutako proiektuak herriko hainbat puntutan 37 joku egitea jasotzen

du. Aurrekontua 12. 800.000 pezeta inguruko da eta jolasak ondoko tokietan jarriko dira datozen egunetan: Angiozarren, Zabalotegin, Espaloian, Matxiategin, Bolun, Martokuan eta Osintxun. Zenbait tokitan jolas zaharrak eta berriak jarriko dira.

Jolasei dagokionez, ziburuak, muelleak, balanzinak, txirristak, jolas askotako torreta txikiak (sokekin, txirristekin etab.) eta lokomotor bat (Espaloian) ipiniko dira. Honelako jolas eskasia zela eta Udalbatzak haurrendako jolasak jartzeko erabakia hartu zuen. Angiozarren 6 joku jarriko dira, Zabalotegin 4, Espaloian 8 joku izango dira, Matxiategin 5, Bolun beste 5, Martokon ere 5 eta Osintxun, azkenik, 4 joku.

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 0 2

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behea

☎ 76 21 65 / 76 24 45


GALLASTEGI

Jostundegia

mahoizko lanerako jantziak

San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

Uda honetan zer?



CIM

HIZKUNTZAK • IDIOMAS

1. Uda honetan zer egin?

Gure proposamena dugun denbora libreari ahalik eta probetxu gehien ateratzea da, eta gu hizkuntzen munduan murgiltzen garenez..., hauekin lotura duten ekin-tzak proposatzen ditugu.

2. Hau nola lortu?

CIMen udarako hainbat ekintza antolatzen ditugu eta jende guztiari zuzenduta daude ekintza hauek:

- 10-15 urte bitarteko-entzat udalekuak antolatu ditugu Brinkolan. Ingelesa ikastearekin batera ondo pasatzeko aukera oso ona da.

- 14-18 urte bitarteko-entzat ingeles ikastaro trinkoak prestatu ditugu Worcester-en (Ingalaterran), Galway-n (Irlandan) eta Denver-en (Colorado, EE.BBn).

Honetaz gain, ikaske-ta orduak nahi ez dituztenak familiekin egonaldiak

egiteko aukera ere badute. Kasu honetan, familia batekin bizitzeko aukera izango dute, klase ordurik gabe.

- 17-18 urte bitartekoekin esperientzia eduki dezakete Worcester-en (Ingalaterran). Horrela, inge-

"berezia" ikastekoa hain zuzen ere.

Guzti hau ingelesari dagokionez. Dena dela, beste hizkuntza batzuen inguruan sortzen diren eskakizun pertsonalez ere arduratzen gara, eskakizun bakoitzari erantzun egoki bat emanez. Beraz, norbaitek beste hizkuntza-

"Hizkuntzak ikasteko jende guztiari zuzendutako hainbat ekintza antolatu ditugu"

lesa ikasteaz gain lan munduarekin lehen kontaktua edukitzeko aukera izango dute.

- Bukatzeko, 18 urtetik gorakoentzat ingeles ikastaroak egingo dira Dublin-en, Galway-n, Denver-en, Londres-en eta Omaha-n.

Enpresa munduan sartuta daudenentzat ere badugu beste aukera bat, enpresa munduarekin erlaziozionatuta dagoen ingeles

ren bat praktikatzeko asmoa badu, gurekin harremanetan jar daiteke.

3. Zein esperientzia du CIMek iharduera hauetan?

15 bat urte daramatzagu Ingalaterrara joaten eta dena ondo joan da, neska-mutilek esperientzia errepikatu dute eta beraien lagunak eta familiartekoak ere animatu dituzte. Hori seinale ona da.

Gaztetxoekin udalekuak egiten hasi ginetik ere pasa dira makina bat urte eta oso ondo pasatzen dutela esan beharra dugu.

Beraz, badakizue guztiak, guk erabiltzen dugun lema esaten duen bezala "hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago"



Idoia MUJKA

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI BADUZU:

Araba Etorbidea, 4 • ARRASATE

☎ 79 65 54

Osasuna

Buru kontrola

- Zertan datza buru kontrolerako Silva metodoa?

- Gure buruaren fakultateak egoki erabiltzeko teknikak lirateke. Orokorrean gizakiak bere buruaren kapazitatearen %10 erabiltzen du bakarrik eta dauzkagun ahalmenak erabiltzen ikasten badugu geure onerako izango da, dudarik ez. Teknikak erlajata ikasten dira eta azken batean tentsioa eta estresa zelan kontrolatu erakusten da. Estresak gaisotasun psikosomatikoaren %90 sortzen du eta bihotzeko zein tronbosien arriskua haunditzen da. Era berean estresak minbizia eragin dezake.


- Gero eta estres haundiagoa dagoen gizarte honetan zelan erlajatu gaitzake?

- Jendea arrazoi barik estresatzen da askotan, udarako pisu bat ez izateagatik edota albokoarenaren pareko kotxerik ez edukitzeagatik. Egunean 3 erlajazio sesio egitearekin nahikoa izaten da. Horrela biokimika negatiboa kanporatzen dugu, izerdia eta gultzurrunen bitartez (gultzurrunek odol gehiago ab-

sorbatzen dute erlajatzera-koan).

- Baina zer nolako teknikak erakusten dituzue?


- Kurtsoan 26 erlajazio saio egiten dira eta ondo lo egitea, loaren kalitatea, oroimena haunditzea, konzentrazio teknikak, pertsonalitate teknikak (konfiantza eta seguritate haundia go izateko), minaren kontrolerako teknikak (sofro-



JOSE MARIA INCERTIS
(Silva metodoaren instruktorea)

logiaren antzekoa) edota erretzeari eta edateari uzteko teknikak lantzen ditugu. Kurtsoaren 2. zatian garapen pertsonalerako teknikak ematen dira. Guztira, ikastaroa 28 ordu-

"Silva metodoaren bitartez estresa eta tentsioa zelan kontrolatu erakusten da"



Ikasleak estresatuta egoten dira kurtso amaieran.

koa da eta behin ikastaroa eginda nahi duzun aldi guztietan errepikatu dezakezu berriz ordaintzeke.

- Zein da horren ondorioa?


- Beste era batean bizitzeko erakusten dugu, arazoei aurre egiteko beste modu bat, azken batean. Batetik soluzioa duten arazoei jarrera positiboarekin aurre egiten erakutsi, lasaitasunez. Eta bestetik, soluziorik ez duten arazoaren aurrean (familiarteko baten heriotza esaterako) ahalik eta sufrimendu gutxien izateko bideak.

- Gorputza kontrolatzera iritsi daitezke?

- Hori da gure helburua. Norberak bere gorputza eta burua kontrolatzea. Gorputzak gure pentsamenduen arabera erreakzionatzen du, pentsamendu negatiboekin okerki eta positiboekin, berriz, modu onean. Irudimena eta pentsamendua kontrolatzean askoz hobeto bizi gaitzake.

- Zer nolako arazoei aurre egin behar izan die jendeak?

- 15 urte daramatzat metodo honen instruktore eta danetik egon da. Hori-erako arazo asko teknikak erabiltzen hasi eta handik astebetera desagertu dira. Esate baterako tartamutu kasuak, jakekekin ibiltzen den jendearenak eta beste asko berehala desagertu daitezke.



BOLSOS BERGARA, S.L.

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetariko konfekzio industriala
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaiz, 1 BERGARA

Tfnoa: (943) 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

Suaroa bizi bizirik

Baserrien Suteen Aurkako Elkartearen aseguria Gipuzkoako bakarrenetarikoa



Baserrietan gero eta ganadu gutxiago dago eta ganadu hermandadeak ia galduta daude.

**Bergara, Antzuola eta Elgetako baserri-
tar gehienek suaren kontrako elkartea
dute osatuta: "Hiru Herri". Ia baserri-
tar guztiak daude hermandadean; suterik
izan ezean suaroa ordaindu beharrik ez
dago.**

Baserriarrak egural-
dia du etsairik
handiena, bere
esanetara bizi da. Natura-
ri ezin dio aurre egin, bai
ordea, gertatzen diren
nahigabeei. Sua da base-
rriarrari galerarik handie-
nak ekartzen dizkion are-
ria.

Hala ere, suak baserria
errez gero, baserriarrak

babestuta daude: aseguru
pribatuaz gain, Bergara-
ko, Elgetako eta Antzuo-
lako baserriarrek her-
mandadean suaren kon-
trako aseguru bat baitute.

Duela 30 bat urte sor-
tu zen suaro hau; lehen-
ago baserriren bat erreta-
koan auzotarrek etxe ber-
ria eraikitzeko garia,
egurra eta lastoarekin

laguntzen zuten. Gauzak
aldatu egin dira...

**Okerrik ezean ez da
ordaintzen**

Baserriar guztiak du-
te aseguru pribaturen
bat, hainbatero hainbes-
teko bat ordaintzen den
horietakoa. Suaroan or-

dea, ez dago hilero edo
urtero ordaindu beharrik.
Bakarrik sutea izanez ge-
ro ordaindu behar da.
Hortaz, baserriren batek
surik hartu ezean ez dago
hainbateko bat jarri beha-
rrik. Sua izanez gero, ord-
daintzeko era berezia da:
hainbeste txahal kiloren
balioa ordaindu behar
izaten da; orain, esatera-
ko, baserriren bat errez
gero, 50 kilo txahalek hil-
tegia egiten duen pre-
zioa ordaindu beharko li-
tzateke.

50 Kg.ren balioa

"Hiru Herri"ko batzor-
dea, txandan txandan, 13
lagunek osatzen dute eta
bi urtero aldatzen da. Ba-
serria erretakoan, batzor-
dekoek baserria ikusi eta
tasatu egiten dute. Gero
barkideak kaltearen pro-
portzioan ordaindu behar
izaten du: baserria erabat
erretzen bada, 50 Kg. txa-
halaren balioa ordaindu
behar da; erdia errez ge-
ro, 25 Kg.rena, e.a. Duela
hilabete batzuk, adibidez,
Elgetan Barrenengua ba-
serria erre zen, baina guz-
tiz erre ez zenez, "Hiru

**"Suaroan ez dago hilero edo
urtero kuota bat ordaindu
beharrik. Bakarrik sutea
izanez gero ordaindu behar
izaten da"**

Herri"ko bazkideek 30 mila pezeta (600 pezeta/kg. x 50 kg.) ordaindu beharrean, 25.000 ordaindu zuten.

Baserrian bizi behar da

"Hiru Herri", Baserrien Suteen Aurkako Elkarte-ko bazkide izateko, baserrian bizi behar da. Hutsik dauden baserriek ez dute hermandadean egoteko eskubiderik. Izan ere, Kaxiano Larreak esan digunez, *"baserriaren bat hutsik badago, gerta liteke norbaitek aseguria kobratzeko, nabita, su ematea. Beraz, horrelakoak sabiesteko, hutsik dauden baserriak ezin dira hermandadean egon. Are gebiago, baserri batekoak kalera joateko asmoa badute, elkarretik atera egiten dira"*



Baserritarren arteko suaroa azkar kobratzen da eta aseguru pribatuaz gain laguntza handia ematen da.

Laguntza beharra

"Hiru Herri" elkarte-

ren laguntzak ez du baserri berria eraikitzeko adina diru ematen, baina merezi du. *"Baserritarrok aseguru pribatu bat izan arren, asko "Hiru Herri"koan ere sartuta gaudе. Aseguru pribatuak baino gutxiago ematen du, baina berebala kobratzen da, ez dago itxoin beharrik eta laguntza handia da"*.

Antzuolan badute beste suaro bat ere

"Hiru Herri"koaz gain, antzuolarrek beste suaro bat ere badute. Elkarte honetakoek ere baserriaren bat erretakoan bakarrik ordaintzen dute, 12

kilo okelaren balioko kuota. Hermandade honetako baserriaren bat hutsik badago ere, badu elkartekidea izateko aukera. Hutsik dagoen baserria erretzen bada, baserriaren jabeak etxearen %75aren proportzioan kobratuko du; inoren baserria errez gero, berriz, jabeak %100 ordainduko du.

Gero eta hermandade gutxiago

Aseguru pribatuak irten direnetik, baserritarrek osatutako hermandadeak edo elkarteak gero eta gutxiago dira. Baserritarren suaroa Gipuzkoako bakarretariko bat da,

"Hiru Herri elkarteko bazkideek baserriaren bat erretakoan bakarrik ordaintzen dute. Baserrian bizitzea ezinbestekoa da"



Gaur egun ganadu hermandade gutxi egon arren, auzolana eta suaroa ondo gordetzen dira.

gainontzeko herrietan galduta dago. Hala ere, baserriarren arteko suaroaz gain, ganaduaren hermandadeak ere badira; oso gutxi, baina geratzen dira. Antzuolan eta Angiozarren, esaterako, badira.

Ganaduaren hermandadea

Angiozarko Jose Ruiz de Eginoren esanetan, ganaduaren hermandadekoak ere gutxitzen doaz. Une honetan, bera partaide den hermandadea 6 baserrik osatzen dute. *"Gero eta ganadu gutxiago dago eta, jakina, jendeak hermandadea laga egiten du".*

Ganaduaren hermandadean baserriar bakoitzak duen buru kopurua arabera ordaintzen du. *"Ganadu buru bat galtzen bada, %80aren balioa tasatzen da, txabala bada, %90; hermandadeko baserriar guztien artean ordaintzen da, baina bakoitzak dituen buruen arabera ordaintzen du".*

Ganadua galdu duenari hilabeteren barruan or-

Herria	Jendea bizi den baserriak	Hutsik dauden baserriak	Hiru Herri suaruan
ANTZUOLA	63	25	63
BERGARA	272	76	158
ELGETA	46	19	12
GUZTIRA	381	120	233



Antzuola, Bergara eta Elgetako baserri gehienak "Hiru Herri" suaroan sartuta daude.

daintzen zaio eta *"paga-mendua, oro bar, meza*

osteren batean egiten da, auzotarrak biltzeko mo-

mentu egokia izaten baita igandeko meza".

ezkerraren botoa

Botuaren bila!!

Alkategaiak kanpainan murgilduta

• **Udal** hauteskundera aurkezten diren alderdiek kanpainari ekin zioten aurreko ostiralean. Ohizkoa denez, lehen eginkizuna kartelak pegatzea izan zen eta kartelak horretarako espreski jarritako paneletan ikus daitezke egunotan herriko hainbat tokitan.

• **Herri Irratiak** ere alkategai guztien arteko debatea eman zuen larunbatean Udaletxetik. PPko hautagaia ez zen bertan izan PPK HBekin eztabaida publikoetan parte ez hartzeko erabakia hartu duelako. Gainontzeko hautagaiak beren programak azaldu eta eztabaida-titutzen.

• **HBk mitina** eman

zuen larunbat arratsaldean Plazan. Mikel Zubimendi parlamentaria, Jose Luis Elkoro zinegotzia eta Maite Aristegi HBko alkategaia aritu ziren hizlari. Beren diskurtsoan, programaren ardatz nagusiak azaldu zituzten eta Udal gobernuak egindako lana kritikatu zuten, maiatzaren 28an irabazteko itzaropena eta nahia azalduz.

• **Kandidatoak** buru-belarri sartuta daude kanpainan. Victoriano Gallas-tegi alkateak esate baterako, botoa eskatuz, etxeko bisitak egiteari ekin dio eta Maite Aristegi, berriz, hainbat hitzaldi eman ditu astean zehar herriko hainbat auzotan

(larunbatean 8etan Elore-egin eta igandean 11.30etan Uberan izango da). Asteazkenean, berriz, "Emakumeen premi-ei erantzuna" gaiari buruz aritu zen UNEDen. PPko hautagaiak ere etortzeko-ak dira hurrengo astean herritarrei beren botoa eskatzeko. HBk, era berean, kalean informazioa

eman eta materiala saltzeko mahaiak jarriko ditu larunbatean eta ostiralean.

• **EAK prentsaurrekoa** antolatu zuen atzo goizean. Carlos Garaikoetxea eta Jose Julian Irizar komunikabideei eta herriko alderdikideei beren egitasmoak azaltzen aritu ziren.



Hauteskunde kanpainarako jarritako panelak kartekez josita.



Miguel ALTUNA

Intsitutua

Bergara

HEZKUNTZ ESKAINTZA

• moduloak •

MODULO III

Mekanikagintza
Administrazioa
Enpresen gestioa
(Teknikari)

2. BTI, 2. BAG, 3. FP II, UBI

MODULO II

Administrazioa
Enpresen gestioa
(Laguntzaile)

2. REM

F.P.II

Mekanika
Elektragarintza

2. REM

Aurrematrikula: maiatzaren 4tik 18ra

Bulego orduak: Goizez: 9.30-13.00. Arratsaldez: 15.00-17.00


Miguel Altuna Institutua
Ibargarai, 2 BERGARA
☎ 76 24 91 / 76 38 49

Astebete pasatxo geratzen da hauteskunde egunerako. Hautagaiak kanpainan bete-betean aurkitzen dira boto eske, maiatzaren 28an beren izenak azaltzen diren zerrenda urnetan sartzeko eskean.




BERRIGARAK herrian aurkezten diren indar politiko guztien programak eta eskaintzak argitaratzeko ahalegina egin du. Zerrendaburuen ametsak, asmoak edo nahiak ezagutzeko alkategaiei egindako elkarrizketak azaltzen dizkizuegu.

54 urte ditu. Zortzi urtetan izan zen zinegotzi eta azken legealdian Bergarako alkate. Aurretik Zerrajeran eta Biltokin lan egin zuen.



**ESPERIENTZIA
ETA
ETORKIZUNA**



"Oraingo zazpi zinegotziei eutsi eta ahal bada zortzi lortu nahi ditugu".

Victoriano GALLASTEGI

- Ze asmorekin aurkezten da EAJ udal hauteskundeetara?

- Azken lau urte hauetan Udalean egin dugun moduan, gure hauteskunde programa betetzeko asmorekin eta herriaren beharrei eta eskaerei erantzuna emateko helburuarekin presentatzen gara oraingoan ere.

- Ze emaitza espero duzue?

- Baikor eta itxaropentsu azaltzen gara. Gure asmoa orain ditugun zazpi zinegotziei eustea da eta, ahal izanez gero, zortzigarren bat lortzea.

- Emaitzak direnak direla, hauteskunde ostean alderdien arteko koalizioak beharrezkoak izango dira gobernatzeko. Jaurlaritzako gobernu koalizioa Bergaran?

- Emaitzak ikusi beharko ditugu lehenengo. Koalizioak ezinbestekoak izango dira inork ez baitu lortuko gehiengo absolutoa. Jaurlaritzako koalizioa Bergaran ere osatu daiteke, baina emaitzak ikusi arte ezin dezakegu ezer aurreratu.

- Hauteskunde hauetan, aurreko udal hauteskundeetan aurkeztu ez diren bi alderdi, PP eta IU presentatuko dira. EAJri

egingo al dio kalte horrek?

- Ez dut uste guri kalte egingo digunik. PPren presentziak PSE-EEri egin diezaioke kalte, azken finean boto espanyolista baitago jokoan. IUk ez digu botorik kenduko. Behar bada HB edo PSE-EEren botoak hartuko ditu. Bestalde, partiduek aurkezten dituzten zereendak oso inportanteak dira eta PPK, esate baterako, ez du bergararik aurkezten. Alkategaia na-

parra da, bigarrena donostiarra eta gainontze-koak madrildarrak. Parakaidistez osatutako zereenda da.

- Zeintzuk dira EAJ-ren programaren ardatz nagusiak?

- Printzipioz, Industrialdea garatu eta berau bultzatuko duen elkarte osatu, SPRI, Diputazio eta Udalaren artean. Gero, errepartzelazio proiektua adjudikatu eta datorren urtean pabiloiak eraikitzen hasi. Bestalde,

"Herriaren beharrei eta eskaerei erantzuna ematea da gure helburua"

- 1 VICTORIANO GALLASTEGI
54 urte
- 2 JABIER GABILONDO
52 urte.
- 3 LUIS ABAJO
49 urte
- 4 KOLDO PEREIRA
37 urte
- 5 FELIPE ALTUNA
65 urte
- 6 XABIER ZABALETA
49 urte
- 7 NERE AMAIA ZABALA
46 urte
- 8 ANTONIO HERZOG
51 urte
- 9 JUAN ANTONIO APERRIBAI
49 urte
- 10 GERMAN MURUAMENDIARAZ
45 urte
- 11 CARLOS ARRONDO
51 urte
- 12 NEREA PLAZAOLA
28 urte
- 13 ARGÑE FERNANDEZ
27 urte
- 14 JOSE LUIS EGINO
43 urte
- 15 BEATRIZ LAZKANO
46 urte
- 16 ION MIRENA LETURIA
33 urte
- 17 JOSE JULIAN URZELAI
58 urte

Diputazio eta Suradesarekin batera kasko historikoa birgaitzen jarraitu, etxebizitza sozialak bultzatu eta gure aktuazioa auzoetan indartu. Gainera, esanda horiek izan daitezke gure egitasmoaren ardatz nagusiak. Euskara, kultura zein kirol mailan ere proiektu ugari ditugu.

- Eta Beheko estazio auditoriumaren kontua?

- Bai, gure programan azaltzen da. Gure asmoa, autobus geltokia dagoen tokian hotel bat eraikitzea da. Ekimen pribatuak bultzatuko luke hori. Eta Ibargarai kalearen bestaldean, geltokiaren parean, auditoriuma egin-gonuk. Inguru horretan eraiki behar diren etxebizitzetatik %15a Udalarentzat izango da

"PPren zerrenda parakaidistez osatuta dago eta bere presentziak PSE-EEri egin diezazioke kalte, azken finean boto españolista baitago jokoan"

"Industrialdea garatu, kasko historikoaren birgaitzearekin jarraitu, etxebizitza sozialak bultzatu edota auditoriuma egin nahi dugu"

eta hortik ateratzen den dirua bideratu daiteke auditoriuma egiteko. Hori izan daiteke irteera bat. Guzti hauek datorren legegaldian egitea da gure helburua.

- EAJren zerrendaren lehen postuetan agertzen diren hautagaiak hartu eta aurreko legealdiko zerrendarekin konparatzen badugu, aldaketa gutxi igarri daitezke. Zer deritzozu horri buruz?

- Zerrendaren lehen postuetan ez dago aldaketa handirik aurreko legealdikoarekiko. Lan egiteko gogoia zuen talde on bat osatu genuen aurreko legegaldian eta horrela jarraitzeko asmoa daukagu. Gauzak ondo doazenean berdin jarraitzea da onena.

- Nobedadea Euska-

diko Ezkerratik datozen hautagaiak sartu dituzuela izan daitezke...

- Bai, EAJren asmoa partidua gizarte osoari zabaltzea da, indar politiko nazionalista guztiak bartzeko ahaleginak egitea. Horren adibidea Euskadiko Ezkerra eta Euskal Ezkerratik datozen Antonio Herzog eta Jose Luis Eginogure zerrendetan sartzea da.

- Alkate aukeratuko bazintuzte egingo zenukeen lehen gauza?

- Ahalik eta esfortzu gehien egin Euskadin pakea lortzeko. Hor jarriko nuke ardura gehien, zeren Euskadin pakea lortzen badugu, gehiago inbertituko da, industria errazago garatuko da, lanpostuak sortuko dira e.a. Lehenbizi pakea lortu.

Euskadiren pakearen bila

- Bergarak duen gabezia nagusia?
- Industrialdea bultzatu eta, orokorrean, industria garatzea.
- Pertsonaia eta gertaera historiko bat?
- Justo Garate eta Udaletxearen birgaitzea.
- Politiko bat?
- Jose Antonio Ardanza.
- Zure bertute eta defekto nagusiak?
- Balorazio horiek besteek egin behar dituztela uste dut.
- Politikan ezin daiteke inoiz onartu...
- Korrupzioa, prebrikazioa, emandako hitza ez betetzea....
- Amets bat?
- Euskadin pakea lortzea.
- Aisialdia nola pasatzen duzu?
- Mendan, hondartzan eta familiarterekin.
- Irakurri duzun azken liburua?
- Gutxi irakurtzen dut. Historiari buruzkoak ditut gustokoen.



"Industriaren garapena da herriak duen beharrik nagusiena. Korrupzioa ezin daiteke politikan inoiz onartu"

ALKATEGAIEI BURUZ ZER?

MAITE ARISTEGI

Neska ezaguna eta oso sinpatika.

JUAN MARI GARITANO

Mondrauetarra. Ez da arrasatearrak deskalkifikatzearen, baina bereziak dira.

ALVARO ESPARZA

Mutil jatorra.

ANDRES DIEZ


Bistaz ezagutzen dut, baina ez dut berarekin harremanik izan sekula.

FERNANDO VERGARAJAUREGUI

Ezezaguna.



32 urte ditu eta EHNEko abokatua izan da orain dela gutxira arte. Ezker abertzalean lanean betidanik, lehen aldiz aurkezten da HBren zerrendetan.



**ILUSIÑUA
BERPIZTU
BERGARA
BIZITTU**



"Gure erronka hautagaien zerrendan freskotasuna ekartzea izan da".

Maite ARISTEGI

- Ze asmorekin aurkezten da HB hauteskunde hauetara?

- Bergararren ilusioa eta konfidantza lortuko dugulakoan, Udaletxera eta Bergarako txoko guztietara freskotasunez betetako ideia eta ekintza berriak eraman eta batzeko.

- Ze emaitza espero duzue?

- Gure helburua herri-tarren iritzia demokratikoki errespetatuz alkate-tza lortzea da.

- HB lehen indarra izango balitz norekin egingo luke koalizioa?

- Asmoa herritarren-tzako onena dena aurrera eramatea da. 17 zinegotzi daude eta denen ilusioak jasotzeko talde guztiekin hitz egiteko prest gaude.

- PP eta IU-EB Ber-

deak aurkezteak nori egin diezajoke kalte?

- Orokorrean abertzale-tasunaren kalterako izango da.

- Zeintzuk dira HB-ren programaren ardatz nagusiak?

- Lehenengo, Udale-txea demokratizatzea, hitz honi bere benetako esanahi partehartzailea emanaz. Udaletxeak herri-tarren benetako etxea izan behar du. Udal ges-tioaren informazio zuzen eta garbia eman behar

zaio herriari. Bestalde, herri guztia kontutan har-tu behar da, hasi zentrotik eta kanpoko kale-au-zo edo baserri-auzotarai-no. Azken hauek abandonatuak egon dira eta merezi duten kontsiderazioa eman behar zaie, herri antolakuntzan parte hartzeko ateak zabaldu eta erreztuz.

Bigarren, bergararren bizi-kalitate maila hobetu egin behar da, baina ba-koitzaren poltsikotik gehi-ago tiratu barik. Gestio

on baten bitartez, herri zerbitzuak hobetu egin behar ditugu, baina presio fiskala gehitu gabe eta herri zorra, ikaragarria dena, jeistea helburu izanik. Ez ditugu ahaztu behar atentzio berezia eskatzen duten giza-taldek, batipat baztertuak edo sozialki egoera txar-renetan daudenak, hau da, zahar eta jubilatuak, emakumeak, gazte langa-betuak, intsumisoak, etxe gabeak e.a.

Hirugarren, kultura al-

- 1 MAITE ARISTEGI
32 urte
- 2 JESUS MARI GARITANO
48 urte.
- 3 AITOR ARANZABAL
27 urte
- 4 MIKEL EGUREN
27 urte
- 5 ANE MIREN ODIOZOLA
39 urte
- 6 JOSE RAMON ETXEBERRIA
42 urte
- 7 AGURNE BARRUSO
26 urte
- 8 IÑAZIO GABILONDO
50 urte
- 9 ROBERTO ARANZABAL
59 urte
- 10 MARGARITA LOPEZ
38 urte
- 11 XABIER ARREGI
19 urte
- 12 IÑAKI ARIETALEANIZ
27 urte
- 13 JUANITO KORTABARRIA
36 urte
- 14 JUAN LUIS ARREGI
42 urte
- 15 KONTXI OTXOA
50 urte
- 16 JOSU GOENAGA
35 urte
- 17 OIHANA BERISTAIN
18 urte

"Herritarren iritzia demokratikoki errespetatuz alkate-tza lortu nahi dugu"

detik dagoena potentziatu eta Bergara biziagoa bihurtu, talde guztien lana baloratuz. Udalak eta herriko taldeek elkarrekin egin behar dute lan. Eta euskarari mimo guztiak egingo dizkiogu, eguneroko bizitzan hizkuntza normalizatu bezala erabiliz udaletxetik hasita.

Laugarren, krisi ekonomikoak eragindako langabeziari erantzuna eman, horretarako errekurtsio gehiago izan behar du Udalak. Gazteak dira krisi ekonomiko eta langabezia gertuen sufritzen dutenak eta euren gurengana zuzendutako politika egingo dugu, lokalak bideratuz, etxebizitza sozialak bultzatuz... Azkenik, herriko errekurtsio ekonomiko guztiei, hau da, baserri, lantegi, denda edo merkatuari lagundu.

Bukatzeke ingurugiroari dagokionez, Bergara eta bere ingurua babesten saiatu behar gara, politika orekatuagoa egin. Maltzaga-Urbina autopista eta Abiadura Haundiko Trena ez dira gure beharrei erantzuteko obrak, kanpoko interesen aldekoak baizik.

- Nola baloratzen du HBk legealdi honetan Udal gobernuak egindako lana?

- HBk batzar informatzaileetan bakarrik parte hartu ahal izan du eta egin ditugun proposamen asko ez dira kontutan hartu. Alde horretatik bai HBrentzako eta baita herriarentzako ere, oso negatiboa izan da, Udalbatza osoak ezin izan du elako herriaren gobernuan parte hartu.

- Eta HBk oposizio

**"Herri guztia kontutan hartu nahi dugu, hasi zentrotik eta kanpoko kale-
auzo edo baserri-
auzotaraino"**

"Gazteak dira krisi ekonomiko eta langabezia gertuen sufritzen dutenak eta euringana zuzendutako politika egingo dugu"

an egindakoa?

- Pozik gaude gure alderdikideek egindako lanarekin, ahaleginak egin dituztelako, nahiz eta gero ez isladatu Udalak hartutako erabakietan.

- Nolako da HBk aurkezten duen hautagaien zerrenda?

- Gure erronka fresko-tasuna ekartzea izan da. Erre usairik gabeko hautagaiak, herria ondo eza gutzen dutenak, ondo prestatutakoak eta sektore guztiak ondo ordezkatzen dituztenak.

- Alkate aukeratuko bazintuzte, egingo zenukeen lehen gauza?

- Edozein arrazoiengatik, batez ere euren borondatearen kontra, herri-
tik kanpo dauden herritarrei eskainiko nieke lortutakoa eta euren nahiekin gogoratuko nintzateke.

Euskal Herri askearen alde

- Bergarak duen gabezia nagusia?
- Gazteentzat lokal egoki bat, beste gauza askoren artean.
- Pertsonaia eta gertaera historiko bat?
- Gandhi. Jesukristok tenplotik lapurrak bota zituenekoa.
- Politiko bat?
- Nelson Mandela.
- Zure bertute eta defekto nagusiak?
- Entzuten dakidala, kontziliatzailea. Ezetz esaten ez dakit.
- Politikan ezin daiteke inoiz onartu...
- Gezurretan ibiltzea. Besteen diruekin norbera aberastea.
- Amets bat?
- Euskal Herri aske, burujabe eta euskaldunean pakean bizi.
- Aisialdia nola pasatzen duzu?
- Baserrian lanean, leitzen, soinua jotzen...
- Irakurri duzun azken liburua?
- Joseba Sarrionandiaren "Ni ez naiz hemengoa".



"Gauzak elkarrizketaren bidez konpontzen direla uste dut eta gezurretan ibiltzea ezin daiteke politikan onartu"

ALKATEGAIEI BURUZ ZER?

VICTORIANO GALLASTEGI

Hainbat bergararren iritzia-
ritziari atek itxi diona.

JUAN MARI GARITANO

Busti nahi duenak behar-
ko uretan sartu.

ALVARO ESPARZA

Euskaldunon nahiak betetzea oztopatzen dutenen laguna.


ANDRES DIEZ

Ezkertzailea baina..., espainiar indarretarikoa.

FERNANDO VERGARAJAUREGUI

Parakaidismoan lizentziatua.

53 urte ditu eta bere kontura egiten du lan. EAren sorreran alderdiko arduraduna Bergaran. Lau urtetan zinegotzi izan da.



ERANTZUNKIZUNA

"Uste dugu hiru zinegotzi lortuko ditugula. Orain bi dauzkagu"

Juan Mari GARITANO

- Ze asmorekin aurkezten da EA udal hauteskudeetara?

- Lau urte oposizioan egon eta gero, helburu garbi bat daukagu datoren legealdirako: Udala demokratizatzea. Indar politiko guztiek hartu behar dute parte herriaren gobernuan. Jaurlaritzako gobernua osatzen duten hiru partiduak oinarritzat hartu eta beste indar politiko guztiak gobernuan parte hartzera gonbidatu. Guztiak biltzen ez bagara eta geure artean elkarri muturka ibiltzeari lagatzen ez badiogu, herriak ez dauka etorkizunik.

- Zenbat zinegotzi espero dituzue?

- Azken autonomikoe-tako emaitzak lortzen badiugu, laugarren zinegotzia oso gertu izango du-

gu. Baina uste dugu hiru lortuko ditugula. Une honetan bi dauzkagu.

- Orain dela lau urteko udal hauteskudeetan EAko boto asko EAJra joan ziren...

- Bai, uste dugu HBK jestio txarra egin zuela orduan eta gure boto asko, egoera hari buelta eman nahian, EAJra joan zirela. Baina azken lau urte hauek nolakoak izan diren kontutan izanda orduan galdu genituen botoak berriz ere geuregana

etorriko dira.

- Azken lau urteak oposizioan eman ondoren, hurrengo legealdian EAJ eta PSE-EE-ekin batera gobernatuko duzue?

- Herriak esaten duena onartu beharko litzateke, baina alderdi guztien programak azertu beharko genituzke lehenbizi eta lehen esan dudan moduan, EAJ, PSE-EE eta EAk Jaurlaritzan duten konpromezua Bergaran ere betetzeko ahaleginak

egingo ditugu ezertan hasi aurretik.

- PP eta IU-EB Berdeak-ek lehenengo aldiz aurkezten dituzte zerrendak Bergaran. Zer deritzozu horri?

- EAJk urte askotan PPren botuak jaso ditu eta hori igarriko dute jeltzaleek maiatzaren 28an. IUk, lehenengo Euskal Ezkerrako eta PSE-EEko botuak hartu ditzake.

- EAren programaren ardatz nagusiak izendatu egizkiguzu.

- 1 JUAN MARI GARITANO
53 urte
- 2 JOSE ANTONIO ETXEBERRIA
46 urte.
- 3 JUAN GARITANO
63 urte
- 4 KONTXI IRIZAR
46 urte
- 5 BITXOR GORROTXATEGI
47 urte
- 6 JUAN CARLOS BERRAONDO
52 urte
- 7 JESUS ELORZA
47 urte
- 8 ARANTZAZU NARBAIZA
44 urte
- 9 ALBERTO BOLIBAR
52 urte
- 10 JOSE IGNACIO MADARIAGA
38 urte
- 11 NERE MUJICA
63 urte
- 12 EMILIO ACEBO
63 urte
- 13 JOSE LUIS AKIZU
63 urte
- 14 IMANOL ALBERDI
65 urte
- 15 JUAN OTAÑO
51 urte
- 16 FELIX UNAMUNO
52 urte
- 17 MAXIMO GOMEZ
46 urte

"Indar politiko guztiek hartu behar dute parte herriaren gobernuan"

- Gairik inportanteena Industrialdea da. Inguruko herri guztiek daukate eta guztietan funtzionatzen dute. Udalaren zorrek ere oso kezkatuta gauzkate, azken finean etorkizunerako hipotekakuta lagatzen gaituzte eta. Bestalde, Erret Mintegiari irtenbide bat topatu behar diogu. Etxea Estatuarena da baina bergararrontzat eskuratu nahi dugu eta horretarako Euskadiko beste erakundeen laguntza behar dugu. Egoera kaskarrean dago eta zenbat eta beranduago eskuratu, orduan eta garestiagoak izango dira berritze kostoak. Bertan auditoriuma egingo genuke, herriaren erdi-erdian.

Bestalde, gure amestari-ko bat Seminarioan ikerkuntzarako talde bat

sortzeko urratsak ematea izango litzateke eta beste bat Arrizuriaga parkea errekueratu eta Ertzaintza dagoen etxean erakusketa areto bat egitea herriko artistek euren lanak erakutsi ditzaten. Ertzaintzaren komisaldegia parke publiko baten barruan dago eta hori ez da tokirik aproposena. Erakusketa iraunkorra izango litzateke eta herriarentzat oso aberatsa, kanpoko jendea erakarriko luke eta. Baina hori martxan jartzeko hotela, nekazal-turismo etxea eta horrelako azpiegiturak behar dira.

- Nola baloratzen du EAK lau urte hauetan egindako lana?

- Ez gara gustora gertatu egindako lanarekin, informazio gutxi izan dugulako eta oso mugatuta

"Erret Mintegia bergararrontzat eskuratu nahi dugu eta egoera kaskarrean dagoen arren zenbat eta beranduago eskuratu, orduan eta garestiagoak izango dira berritze kostuak"

"Lau urte hauetan zerbait ikasi dugu: Udalean zertzuk egin behar ez diren"

aurkitu garelako. Baina gauza bat ikasi dugu, hain zuzen ere, zertzuk egin behar ez diren Udalean. Udal gobernua egindako lana eskasa izan da, herritarrekin moka, hainbat adjudikaziotan legea ez da bete... Kontuak kontu lau urteko esperientzia badugu eta datorren legealdirako ondo aukeratutako hautagaiak sartu ditugu zerrendan.

- Alkate aukeratuko bazintuzte, egingo zenukeen lehen gauza?

- Udala demokratizatu, dauzkagun zorrik murriztu eta herritarren arteko foro bat sortzeko lan egin. Herriak, gizarteak, hartu dezala protagonismoa. Indar politikoe-tatik aparte, herritarrak bilduko lukeen elkarte edo plataforma.

Etorkizunarekin kezkatuta

- Bergarak duen gabezia nagusia?
- Bergararrok etorkizunerako zer nahi dugun jakitea.
- Pertsonaia eta gertaera historiko bat?
- Jose A. Agirre. Bergarako Udaletxean ikurriña jarri zenekoa.
- Politiko bat?
- Carlos Garaikoetxea.
- Zure bertute eta defekto nagusiak?
- Horri neure inguruko jendeak erantzutea hobe.
- Politikan ezin daiteke inoiz onartu...
- Zikinkeriarik.
- Amets bat?
- Bergararren artean elkarri muturka ibiltzea desagertzea.
- Aisialdia nola pasatzen duzu?
- Txakurrarekin pasiatzen eta Euskal Herria ezagutzen.
- Irakurri duzun azken liburua?
- Euskal Herriko historiari buruzko liburuak irakurtzen nabil.



"Jose Antonio Agirre lehendakaria izan zena, gizon apala, zentzuduna eta zuzena asko miresten dut"

ALKATEGAIEI BURUZ ZER?

VICTORIANO GALLASTEGI

Ez daki demokrazian lan egiten.

MAITE ARISTEGI

Ez dut ezagutzen.

ALVARO ESPARZA

Mutil jator samarra.

ANDRES DIEZ

Ez dut ezagutzen.


FERNANDO VERGARAJAUREGUI

Ez daukata ideiarik, ez dut ezagutzen eta ezin dezaket berari buruzko iritzirik eman.

**42 urteko
administrariak
Arrasateko Udalean
egiten du lan.
Azken lau urte
hauetan zinegotzi,
EEen militatu zuen
PSEekin bildu arte.**



**GURE HITZA
BERGARA**



"Bergaran EAJ eta EAekin batera gobernatzeko prest gaude".

Alvaro ESPARZA

- Ze asmorekin aurkeztzen da PSE-EE maiatzaren 28ko hauteskundeetara?

- Itxaropentsu agertzen gara. Estatu mailan gauzak ez doaz hain ondo, baina azken lau urte hauetan Bergaran lan ona egin dugula uste dut eta hori boto emaleek kontutan hartuko dute.

- Zenbat zinegotzi espero dituzue?

- Orain dauzkagun biei eutsiko diegu. Azken hauteskundeetan, Autonomikoetan, 796 boto jasotzen eta 10 boto gehiagorekin bi zinegotzi lortuko genituzke, beraz, maiatzaren 28an uste dut erraz lortu ditzakegula bi zinegotzi. Ez da amets bat, datuak mahai gainean, argi dago gure asmoak errealitate bihurtu daitezkeela.

tezkeela.

- Eusko Jaurlaritzako hiruko gobernua Bergaran ere osa daitezke?

- Jaurlaritzako koalizio gobernua hitzartu zenean, EAJ eta EAK udaltan ere elkarrekin gobernatzeko akordioa sinatu zuten. Guk ez genuen konpromezu hori hartu, baina Bergaran EAJ eta EAekin batera gobernatzeko prest gaude.

- PSE-EE Bergaran oposizioan ikusten al

duzu?

- Lau urte hauetan Udal gobernuan izan gara EAJrekin batera, eta lan ugari egin dugu gizarte ongizate arloan eta osasun arloan. Aurrerantzean ere herriaren alde gobernuan egin dezakegu lan.

- Hala ere, kontutan izan behar da azken udal hauteskundeetara aurkeztu ez ziren bi alderdi PP eta IU-EB Berdeak aurkeztuko direla oraingoan.

- 1 ALVARO ESPARZA
42 urte
- 2 JAVIER CENDOYA
50 urte.
- 3 MARINO MILLAN
57 urte
- 4 ALFONSO ZAFRA
49 urte
- 5 JUNCAL ORBEA
37 urte
- 6 JAVIER CAMBRONEL
24 urte
- 7 FRANCISCO JAVIER GARAY
37 urte
- 8 BEGOÑA URBISTONDO
51 urte
- 9 RAFAEL SANCHEZ
27 urte
- 10 AGUSTIN SANCHEZ
68 urte
- 11 ANA MARIA SANCHEZ
27 urte
- 12 JOSE TEJADA
63 urte
- 13 JUAN PINEDA
52 urte
- 14 JUSTI SANCHEZ
24 urte
- 15 JOSE MORALES
78 urte
- 16 MARIA LUISA QUINTAS
62 urte
- 17 PABLO SOLA
66 urte

**"Herrian egin dugun lan ona
botoemaleek kontutan
hartuko dutela uste dut"**

tonomikoetan baino boto gutxiago jasoko dituztela uste dut.

- Zer eskaintzen dio PSE-EEK Bergarako herriri?

- Programa sakona eta aberatsa aurkezten dugula uste dut. Ardatz nagusiak gizarte ongizatea, etxebizitza sozialak eta enplegua dira. Hirigintza arloan ere proposamen ugari jasotzen ditugu.

Eskaintza konkretuei dagokienez, Ibargarai-Torrekua inguruan etxebizitza sozialak eraiki nahi ditugu, Artzamendin natur parkea bultzatu, Industrialdea martxan jarri, zerbitzu sozialen oinarritzko sarea bultzatu, traba arkitektonikoak ezabatzeke lau urtetarako proiektua egina daukagu eta indarrean jarri, hirugarren münduari udal au-

rrekontuaren %0,7a bideratu... Enplegu arloan, bestalde, eskola tailerra, lanbide hastapena, ofizio eskola eta abarrak Miguel Altunan jarri nahi ditugu.

- Oker ez bagaude aldizkari elebidunaren alde zaudete...

- Bai, PSE-EEK euskararen aldeko apostua egiten du, baina kontutan hartu behar dugu hainbat herritarrek ez duela euskara ulertzen eta horiek ere ordaintzen dituzte in-puestoak. Beraz, euskaraz eta gazteleraz, bietan idatzitako errebistaren alde gaude.

- Nola baloratzen du PSE-EEK udal gobernuan legealdi honetan egindako lana?

- Balorazio positiboa egiten dugu. EAJ eta PSE-EEren artean ezberdintasun haundiak daude ide-

"Gure progamaren ardatz nagusiak gizarte ongizatea, etxebizitza sozialak eta enplegua dira"

"Bergarako kaleak eta etxeetako fatxadak garbi izateko neurriak hartuko nituzke"


ologiari dagokionez, baina diferentzia horiek gaintitu eta orain dela lau urte hitzartutako programa aurrera ateratzen jakin dugu. Udaletxearen eta bere ingurunearen birgaitzea, Artzamendiko etxebizitza sozialak, Industrialdea martxan jartzeko hitzarmena, Deba Ibaiaren biderapena, Arau subsidiarioak, kasko zaharreko fatxaden birgaitzea, Arrisku soldata, Oxirondoko azoka e.a., legealdi honetan egindakoak dira. Beraz, lan ona egin dugula uste dugu.

- Alkate aukeratuko bazintuzte, zer egingo zenuke lehenbizi?

- Bergarako kaleak eta etxeetako fatxadak garbi izateko neurriak hartuko nituzke, Bergara oso herriri polita da eta garbi eduki behar dugu.

Gazteen beharrei erantzun

- **Bergarak duen gabezia nagusia?**
- Arautegi batez funtzionatuko duen gazteentzako lokalak.
- **Pertsonaia eta gertaera historiko bat?**
- Francois Miterrand. Ingalaterra eta Irlanda pakerako bidean.
- **Politiko bat?**
- Mario Onaindia.
- **Zure bertute eta defekto nagusiak?**
- Lan egitea asko gustatzen zait. Momentuko letxe txarra.
- **Politikan ezin daiteke inoiz onartu...**
- Politikan eskuak garbi eduki behar dira beti.
- **Ametz bat?**
- Euskal Herrian pakea lortzea.
- **Aisialdia nola pasatzen duzu?**
- Familiarekin eta lagunekin.
- **Irakurri duzun azken liburua?**
- Politikazko aldizkariak irakurtzen ditut soilik. Libururik ez.



"Denbora librean familia eta lagunekin pasatzen dut; ahal dudanean jaioterria, Pitillasera hanka egiten dut"

ALKATEGAIEI BURUZ ZER?

VICTORIANO GALLASTEGI

Lau urtetan elkarrekin lan egin dugu eta aurrerantzean ere jarraitzeko asmoa dut. Pertsona ona da.

MAITE ARISTEGI

HBren alkategaia zela enteratzean ezagutu nuen.

JUAN MARI GARITANO

Uste dut pertsona ona dela, baina burugogorra.

ANDRES DIEZ

Bistaz ezagutzen dut.

FERNANDO VERGARAJAUREGUI

Idearik ez daukat.

37 urte ditu eta Bergarako postetxean egiten du lan. Urtetan Ignacio Gallegoren PCPEko kide izan zen. Gipuzkoako IUko arduraduna.



EZKERRAREN BOTOA



"Udala hipotekatzen duten obra faraonikoen kontra gaude".

- 1 **ANDRÉS DIEZ**
37 urte
- 2 **ISABEL SALUD**
33 urte
- 3 **JUAN MANUEL GARCIA**
29 urte
- 4 **MARI CARMEN ZABALETA**
26 urte
- 5 **AMANDO BLANCO**
37 urte
- 6 **EULOGIO DIEZ**
68 urte
- 7 **ANA MARIA GONZALEZ**
44 urte
- 8 **JUAN FRANCISCO ALBERDI**
78 urte
- 9 **SALVADOR GONZALEZ**
39 urte
- 10 **ARRATE ROMERO**
20 urte
- 11 **MIGUEL ANGEL HERNANDEZ**
27 urte
- 12 **LUIS GARCIA**
45 urte
- 13 **JOAQUIN GARRIDO**
71 urte
- 14 **MARIA BELÉN ARZA**
33 urte
- 15 **VICTOR LEKUNBERRI**
23 urte
- 16 **ERNESTO HOZ**
43 urte
- 17 **LUIS CRESPO**
33 urte

Andres DIEZ TIMOFEVA

- Ze asmorekin aurkezten da IU-EB Berdeak hauteskunde hauetara?

- Udaletxera lan egitera goaz, Udaletxea kalera ateratzeko eta herritarrengana hurbiltzeko lan egitera, herritar asko ez baita enteratzen Udaltzatzak hartzen dituen erabakiez, nork hartzen dituen erabakiak... Transparenziaren alde egingo dugu lan, garbitasunaren alde. Udaletxeari haize freskoa emango diogu, ezkerretik datorren haizea. Alderdikeriak alde batera laga eta herriaren alde lan egin.

- Ze emaitza espero duzue?

- Azken hauteskundeetako datuak kontutan hartuta, gutxienez zinegotzi bat lortu dezakegu.

Bi badira hobe, baina batekin konformatuko gara.

- Bergaran gobernatzeko koalizioak egin beharko dira. Udal gobernuaren barruan ikusten al duzu IU-EB Berdeak?

- Oso nekez ikusten dut, seguruen oposizioan egongo gara. Hori bai, programa kontutan izanda eta momentuan-momentuko akordioak paktatuz ados jarri gaitezke alderdiren batekin. EAJ-rekin ez dut uste akor-

diotara helduko ginatkeenik, euren eta gure programaren artean ezberdintasun asko daudelako.

- Hitz egin dezagun IU-EB Berdeak-ek udal hauteskunde hauetarako prestatu duen programari buruz.

- Herri guztietako arazoak berdintsu samarrak dira eta argi dago, gainera, Udalek dituzten kompetentziak, ahalmenak, nahiko urriak direla. Gure proposamenak? alde

batetik, herriak parte hartze haundiagoa izan behar du Udalak hartzen dituen erabakietan. Herritarren arazoak Plenoetara eramango dituzten Udal kontseiluak ere ezinbestekoak iruditzen zaizkigu. Osoko Bilkuretan parte hartzeko aukera izan beharko lukete herritarrek eta herriarentzat oso inportanteak diren gaietarako erreferendumak planteatuko genituzke, herriak izan dezan azken hitza.

"Transparentzia eta garbitasunaren alde lan egitera goaz Udalera"

Etxebizitza sozialak bultzatuko genituzke, baina etxebizitza sozialei dagozkien benetako prezioekin, ez oraingo prezioekin. Langabeziari aurre egiteko programa bereziak egingo genituzke... Orokorrean, herriari ahalik eta zerbitzurik onenak eman, eta herriak izan dezala erabaki inportanteetan azken hitza.

- Udal gobernua eta oposizioak azken lau urte hauetan egingadako lana nola baloratzen duzu?

- Udala etorkizuneko hipotekatuko duten obra faraonikoen aurka gaude. Udalak une honetan zor haundiegia dauka eta etorkizunean etorriko direnei oso zaila gertatuko zaie lan egitea. Uste dut epe luzerako planik ez dela egin, diru gehiegi

"Etxebizitza sozialak bultzatuko genituzke, baina etxebizitza sozialei dagozkien benetako prezioekin, ez oraingo prezioekin"

"Uste dugu orain arte epe luzerako planik ez dela egin, diru gehiegi gastatu da"

gastatu da eta etorkizuna hipotekatu egin da. Transparentzia eta herriaren parte hartzea ez ditut inondik inora ikusi.

Eta oposizioari dago-kionez ezer gutxi esan dezakegu. Agian lan ona egin du, edo beharbada ez. Herria ez da enteratu eta uste dut horren errua berea dela, ez du jakin izan Udalean gertatzen zena herriari azaltzen.

- Egiguzu IU-EB Berdeak-ek Bergaran aurkezten duen zerrendaren analisi txiki bat.

- Zerrenda gutzia bergarrez osatuta dago, jende gaztea batez ere, eta ia gehienak langile mugimenduetan ibilitakoak gara. Bost emakume agertzen dira eta ez dira asko baina Gipuzkoako herri batean, esate baterako, 13ko zerrendan

9 emakume agertzen dira. Esperientziari buruz aitor-tu behar dut nik ez daukadala esperientziarik Udaleko lanetan, baina zerrendan bigarren postuan agertzen dena, Isabel Salud, zinegotzi izan da zazpi urtetan Bartzelonako herri txiki batean, San Climent de Llobregat-en hain zuen ere. Beraz, Udaleko administrazio kontuetan laguntza oso ona izango dut.

- Alkate aukeratuko bazintuzte, egingo zenukeen lehen gauza?

- Soldata jeitsi eta milioi batzuk gutxiago kobratu. Bergarako alkateak urtean ia zazpi milioi irabaztea gehiegi iruditzen zait. Cordoba, Valladolid dota hauen moduko beste hiri haundi askotako alkateek ez dute hainbeste irabazten.

Betidanik komunista

- Bergarak duen gabezia nagusia?
- Langabezia. Beste guztiak ez dira hain inportanteak.
- Pertsonaia eta gertaera historiko bat?
- Lenin eta Errusiar Iraultza.
- Politiko bat?
- Julio Anguita.
- Zure bertute eta defekto nagusiak?
- Lanerako ahalmena. Defekto bat, burugorra naizela.
- Politikan ezin daiteke inoiz onartu...
- Hipokresia, gezurretan ibiltzea.
- Amets bat?
- Gizartea eraldatzea.
- Aisialdian zer?
- Xakean jolastu, mendira joan, eskalatu, fosilak bilatu...
- Irakurri duzun azken liburua?
- Umberto Ecoren "El péndulo de Foucault"



"Politikan gezurretan ibiltzea ezin daiteke inoiz onartu eta gizartea eraldatzea da nire amets nagusia"

ALKATEGAIEI BURUZ ZER?

VICTORIANO GALLASTEGI

EAJren eta Euskadiko eskumaren ordezkarietako bat.

MAITE ARISTEGI

Kalean esnea banatzen zuenean askotan elkartzen ginen. Ondo konpondu gaitezke.

JUAN MARI GARITANO

Ez dut ezagutzen.

ALAVARO ESPARZA

Uste dut lanbidea ez duela ondo aukeratu. EAJrekin paktatzeko beti prest.

F. VERGARAJAUREGUI


Ez dut ezagutzen, baina PPkoa izanda, sekula ez gara bat etorriko.



23 urte ditu eta enpresa ikasketak egiten ari da Donostiako EHUko fakultatean. Hirugarren mailan dabil. 1993an atera zuen PPko karneta.



SOLUZIOAK



"Euskara bultzatuko dugu, baina alderdikeriak alde batera lagata"

F. VERGARAJAUREGUI

**- Udal hauteskunde-
ei dagokienez PPK le-
hen aldiz presentatzen
ditu hautagai zerren-
dak Bergaran. Zer su-
posatzen du horrek?**

- Azken bozketetan 436 boto lortu genituen eta boto kopuru horrek zinegotzi bat emango ligu-keela kontutan izanda, oraingoan ahalegin haundiak egin ditugu Bergaran hautagai zerrendak aurkezteko. Bergaran botoa eman digutenei zerrenda bat eta aukera bat ematen diegu. Herriko hautagairik ez egotea tamalgarria da baina hau lehen urratsa da eta hemendik lau urtetara zerrendaburu herritar bat aurkeztea da gure asmoa.

**- Nori kenduko diz-
kio botoak PPK?**

- Alde batetik, PSE-EE-

ri estatu mailako indar politikoa delako. Bestalde EAJri zentro-eskuineko botoak kendu diezaizkiokegu.

**- Askok kostatu al
zaizue Bergaran ze-
renda osatzea?**

- Bai, denbora asko eman dugu herriko norbaiten bila. Egia esan Gregorio Ordoñezen hilketak jende asko beldurtu du.

**- Nola baloratzen
duzue hautagaien ze-
rendan bergararrik ez**

egotea?

- Aurka daukagun gauza bat da, baina nire ustez ez litzateke horrela izan behar, hautatua irtezen baldin banaiz bertakoa izango banintz bezain ondo lan egingo baitut.

**- Ze emaitza espero
duzue?**

- Zinegotzi bat lortu nahi dugu. Aukerak badi-tugu, baina herriko hau-tagairik ez edukitzeak jendeak nola hartuko du-
en ez dakigu. Hala ere,

bertakoa ez izateak gauza onak ere izan ditzake, esate baterako, bertako hautagaiak elkar ezagut-zen dute eta euren artean desberdintasunak egon daitezke, elkarri mokoka ibili daitezke eta hori ez da ona. Gu berri-ak gara, ez gaitu inork ezagutzen, eta guri bu-ruzko aurreritzi pertsona-lik ez du jendeak.

**- Eta Gipuzkoan ze
espero duzue?**

- Eibar, Tolosa, Za-
rautz, Irun eta Donostian

- 1 FERNANDO VERGARAJAUREGI
23 urte
- 2 JAVIER AZURZA
23 urte.
- 3 JAVIER CARRASCO
- 4 LAUREANO CABELLO
- 5 MIGUEL CASANOVAS
- 6 ANTONIO DE LA CRUZ
- 7 MOISES CANO
- 8 ROCIO CANO
- 9 JOSE CANO
- 10 GREGORIO CAMACHO
- 11 MERITXELL CENTENERA
- 12 FELIPE CARRASCOSO
- 13 MARIA ISABEL COSIN
- 14 MARIA MILAGRO COBIAN
- 15 AMALIA CARMENA
- 16 JOSE CEPEDA
- 17 MARIA JOAQUINA COMISION

**"Gobernabilitatearen alde
egingo dugu lan eta
kontsentsoa bultzatu"**

ditugu zinegotziak gaur egun. Maiatzaren 28tik aurrera 25 herritan izatea da gure nahia.

- Zer eskaini diezaioke PPk Bergarako herriari?

- Zinegotzi bat lortzen badugu, gure jarraitzaileak Udalean ordezkaturik izango dira eta Udalbatza pluralagoa izango da. PP ordezkaturik egon den tokietan edo gobernatzeko aukera izan duen herrietan jendea gustora dago eta botoek gora egin dute.

- PP oposizioan ala gobernuan egongo da zinegotzi bat lortzen badu?

- Gobernabilitatearen alde, kontsentsoa bultzatuko dugu.

- PPren programaren puntu nagusiak zeintzuk dira?

- Etxebizitza berriak sortzeko ekimenak bultzatu, lurra merketuz; gazteei bidea erretu lehen etxebizitza lortzeko; gazte, ikasle edota beharreen daudenei alokairuko etxebizitzak eskaintzeko ekimen pribatuarekin akordioak egin...

Bestalde, gizarte zerbitzuen arloan, Bergarak duen gabezien azterketa sakona egin nahi dugu eta langabetu, zahar, emakume, haur, emakume ezkongabe, drogazale eta abarrei laguntza bereziak eskainiko dizkiegu.

Enpresa berriak sortzeko ekimen pribatuari eta langabetuak kontratatuko dituen enpresei laguntza fiskalak eskaini nahi dizkiegu. Era berean, lanbide hezkuntzari bultzada eman eta INEMekin batera lan egiteko

hitzarmenak egin.

Azkenik, euskara bultzatuko dugu, baina alderdikeriak alde batera lagata. Euskadin bizi garen guztion ondasuna da, 7.000 urteko historia du eta gorde eta bultzatzeko esfortzuak egin behar ditugu.

- Bergara ezagutzen duzue?

- Behin edo izan gara eta oso polita da. Turismo arloan ere lan handia egin daiteke. Kultur mailan talde ugari daude, euskaldun portzentai altua dago eta herri industrialia da. Bestalde, nik ez dakit euskaraz hitz egiten, baina ahaleginak egin behar ditut ikasteko.

- Alkate aukeratuko bazintuzte, zer egingo zenukeen?

- Herriaren alde ahalik eta lan gehien egin.

"Etxebizitza berriak sortzeko ekimenak bultzatuko ditugu eta lehen etxebizitza lortzeko gazteei bidea erretu"

"Herriko hautagairik ez egotea tamalgarria da, baina hau lehen urratsa da"

Gazteen beharrei erantzun

- Bergarak duen gabezia nagusia?
- Lanik eza eta etxebizitzaren gabezia.
- Pertsonaia eta gertaera historiko bat?
- Alexander Fleming eta penizilinaren aurkikuntza.
- Politiko bat?
- Gregorio Ordoñez, niretzako lagun bat.
- Zure bertute eta defekto nagusiak?
- Tolerantzia eta lo egitea gehiegi gustatzen zaidala.
- Politikan ezin daiteke inoiz onartu...
- Korrupzioa eta intolerantzia.
- Amets bat?
- Munduan pakea izatea eta ni neu zoriontsu izatea.
- Aisialdia nola pasatzen duzu?
- Musika entzun, kitarra jo eta lagunekin irtetzen
- Irakurri duzun azken liburua?
- Torcuato Luca de Tenaren "Los renglones torcidos de Dios"




"Alexander Fleming asko miresten dut, Penizilinaren aurkikuntzarekin gizateriaren alde lan izugarria egin zuelako"

BERGARAR JATORRIA


Fernando Vergarajauregui Heiniger, PPko alkategaia jatorri bergararra duela aitortu digu elkarrizketan zehar. Zerrajerako ugazabetariko baten familiartekoa da. Amaren partetik jatorri suitzarra du, hortik bere bigarren abizena. Txikitik Municheko Bayerneko jarraitzailea, futbol mundialak ditu oso gustoko. 60ko hamarkadako hippye musika entzuten du: Jefferson Airplane, Kinks..., eta kitarra jotzen du aisialdian.

Zure ustez zein kualidade izan behar ditu alkate on batek?



Bitxor Agirrebarrena
29 urte, langilea

Lehenbizi gazteengatik ardura azaltzea. Eta ez dezala diru gehiegi gastatu, Udaletxearekin egin den bezala.



Carlos Elorza
64 urte, jubilatua

Herria maitatzea lehenengo eta gero ba herriak dituen beharrik premiazkoenak zaintzea, horrei lehentasuna ematea.



Miren Ibarzabal
61 urte, etxekoandrea

Zuzena izatea. Ez dakit, herriarekin eta herritarrekin ondo konpontzea adibidez.



Ainhoa Aranguren
20 urte, langilea

Ez dakit, herriak eskatzen duenari erantzun beharko lioke. Eta gero ba denekin zuzen jokatzeari eskatuko nioke.



Karmen Urrutia
33 urte, langilea

Herritar guztion alkatea izatearekin konformatzen naiz.



Enrique Olabide
47 urte, langilea

Herriagatik lan egitea, zein partidutakoa den alde batera utziz. Herriari lehentasuna ematea.



ZABALETA ERROTULOAK

**Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...**

Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**


Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

Deco-Textil

ZANGITU

**Etixerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.**

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



KORTA-ZAR

Txokolategia

**Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea**

**OSTIRALETAN GOIZEKO
9ETATIK ZABALIK**

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62



Itxurakeria

Benetan uste ez dena azaltzea da hipokresia edo itxurakeria hiztegian irakurri daitekeenez. Hona hiru adibide. Irurtzun Andoain autobidea ekologiararen adibidetzat azaldu dute sekulako bistak dituela esanaz. Errepidetik mendira begiratuta, bai, noski, baina bestaldetik "bista ederra" da karretera bailara erdian. Areso herriari zementuzko txapela ere jarri diote. Behintzat Leitzaran salbatu da.

Ondorengo adibidea gogorra da agian baina horrela uste dut. Duela bi aste bahitutakoaren askatasuna exijitzen ari diren askori, gehienei, ez zaie honen bizia asko inporta. Hilko balute eurentzat hobe, euren nahia ez baita bahituaren askatasuna: baizik eta Euskal Herriaren askatasunaren aldeko mugimentua ahultzea.

Hamaika aldiz entzun dugu, adibidez presoen baldintzak salatuz Udaletxera proposamenak eraman direnean, ez dela Udala politizatu behar. Aurreko astean Udaletxean lazo urdina jarri zela esan didate.

Hirugarren eta azkena. Euskal Telebista euskararen eta Euskal Herriaren normalizaziorako pieza garrantzitsua izango zela uste genuenon ametsa amesgaizto bihurtu da. Gero eta gaztelera gehiago dago. "La TV de aki". Duela urte batzuk erdarazko katea jarri ziguten. 1.30etan Maddaleneke eta 2.30etan Callejak informazio berbera bi eratara ematen dute askotan.

Goenkalek hainbat mila ikusle omen ditu, guztiak euskaldunak, baina, "basco", abizena soilik duen egunkaria ageri da bakkarrik, ez "egunkaria", periodiko probintziano, español, errejonalista eta abertzaletasunetik zerbait izatekotan Espainiako erregeari dion begirunea duena soilik.

Kanpainan euskaraz ez dakiten hautagaiek ere debateetan parte hartuko dute. Horrela, euskaraz bizi nahi dugunok jai dugu. Beharrak sortzen ez diren bitartean eta erdaldunei aukera berdina ematen zaizkien bitartean, ez dute sekula euskara ikasiko.

Jon ALTUNA



Kanpainan

Hauteskundeak pasa eta gero AEK eta beste erakunde batzuk egin izan dituzte txostenak hauteskunde kanpainan euskararen erabilera zein den plazaratzeko. Zoritxarrez oraindik maila maila pobrea da. Kanpaina garaian politikoaren helburua bere mezua ahalik eta jende gehieni zabaltzea da.

Nahiz eta teoriarik euskararen alde egon, gero mezu hori azaltzerakoan euskararen aldeko jarrera tinkoena dutenak ere erderara jotzen dute, bere jarraitzaileen zati batek euskeraz ez dakielako esanez. Askotan euskera keinu sinboliko bat bezala erabiltzen da: hasieran lau hitzak esan eta kitto.

Euskal politikoak gustoko izango lukeen gizarte euskaldun honek errealitate ukazinarekin topo egiten du: badago oraindik herri honetan jende asko euskara ez dakiena eta bere botoa berdin berdintsua da. Noski, botu horiek irabazi egin behar dira. Horregatik kanpaina garaian alderdien hizkuntz kriterioak leuntzen dira, botua eskatzerakoan denak elebidunak dira.

Politikoak gizartearen islada dira, besteak beste uste dut gizarteari gehiago eskatzen diotela beraiek egiten dutena baino. Zenbat politikari gaitzikatu lituzke Administrazioak bere mailako funtzionarioei ezartzen dizkien euskera frogak? Pozgarria da aberzale ez diren hautagaiek euskeraz mintzatzen ikustea. Euskera ez da alderdi edo ideologia baten ondare eksklusiboa. Denona da. Egin dezatela politikoei ahalegin bat bere hizkuntz maila hobetzeko. Ez nuke nahi euskera keinu sinboliko hutsa bihurtzea.

German LARRAÑAGA

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

AZPEITXI

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65



DEBA

GARAIA

**INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37




Txilintxaren estreinua

Bihar, maiatzak 20, **Txilintxa abesbatzak** emanaldia eskeiniko du 19.30etan Mariaren Lagundiko elizan. **Kristina Gallastegi, Amaia Familiar, Yolanda Cebrián** eta **Iñigo Alberdik** abesbatza osatu zuten orai urtebete eta biharko aurkezpenean, euskal musika jorratuz, Elizalde, Usandizaga edota Eustaquio Azkarate-Askasuaren piezak eskeiniko dizkigute. Abesbatzari laguntzen **Nerea Madina** pianujolea eta **Blanca Cebrián** kitarrajolea arituko dira. **Javi Arrondok** (tronpeta) eta **Arantzazu Saizek** (organoa) ere Corelliren tronpeta kontzertua eskeiniko dute.

11-14 urte bitarteko 35 neskatilak osatzen dute Mariaren Lagundiko Txilintxa abesbatza.

Artea kalera

Bedelkar **Bergarako Dendarien Elkarteko 106 komertzioak** erakuslehiu bihurtu zaizkigu egunotan. Beart artisten elkartearen laguntzaz, 113 margo eta eskultura lan ikusgai daude egunotan herriko dendetan eta gaur arratsaldeko 8 t'erdietan zozketa egingo da Alargunen elkartean. Banatu diren boletoen artean egingo den zozketako irabazleak erakusgai dauden lanetatik nahi duena eraman ahal izango du etxera. Era berean, gainontzeko lanak salgai izango dira datorren maiatzaren 28ra arte. Beraz, adi eskaparatei...



Herriko dendetako eskaparateetan ikus daitezke Bergarako artisten lanak.

Iturkintz Berri
INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa
 Amillaga, 1 (B Pabiloia) ☎ 76 28 04 BERGARA

ARTISAUTZAKO IZOKIA
GOXO-TOKI
 D. Irala, 3 - Tlf. 761235
 Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
 BERGARA




Beste garai batzuk gogoratuz

Orain 25 urte Mariaren Lagundian batxiller ikasketak amaitu zituzten ikasle talde bat larunbatean *monjetan* bildu zen. Eguerdian meza entzun ondoren, Mariaren Lagundiko monjekin bildu ziren *lunch* batean eta ondoren ikastetxearen bisitaldia egin zuten. Guztiak harriturik geratu ziren ikastetxeak urte hauetan izandako aldaketekin eta, nostalgja haundiz, orduko garaiak eta anekdotak gogoratu zituzten. Irakasleei ere etortzeko deia luzatu zieten eta Jesus Arpal beraiekin izan zen egun berezi horretan. Ikasleak, berriz, Bergara eta inguruko herrietatik etorri ziren eta Valladolidetik etorri zenik ere izan zen. Guztira 27 lagun bildu ziren eta eguerdian Lasan bazkaldu zuten, elkarrekin egun ahaztezin bat igaroz.

Goian,
Mariaren
Lagundiko orain
25 urteko
batxilerrak.
Larunbatean
goiko argazkiko
toki berean bildu
genituen. Jesus
Arpalek
azpimarratu
zuen moduan
orain gazteago
daude...



**Zertan
dihardute
ba?**



Iñaki Iturbe 23 urteko bergararrak Eusko Ikaskuntzak azaroan Zamudioko Parke Teknologikoan izango den Euskal Estudioen XIII. Kongresurako konbokatutako kartel lehiaketa irabazi du. Guztira 30 bat lan aurkeztu ziren lehiaketara (tartean Cuencatik bidalitako 5 eta Alicanteko beste bat) eta Iñaki Iturbek *pastel* teknikaz eginiko lana izan zen irabazlea. Sari gisa, 200.000 pezeta eskuratuko du Iturbek. Epaimahaia Nestor Basterretxea, Montserrat Fornells, Javier Ruiz de Muniain, Alfredo G. Ramos eta Ricardo Torrecillak osatu zuten. Iñaki Iturbe Arte Ederretako 4. maila egiten ari da Leioako Fakultatean.


ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA

 **zumelaga**
JATETXEA
IGANDETAN ZABALIK!!
San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

Luis Mari Gutiérrez "Guti"

Mayceko langilea eta Udal Bandako estandarte, Luis Mari Gutiérrezek (44 urte) harreman berezia du Pazkuekin, Jai Batzordeko kidea izan baita azken 16 urtetan Felix Beitia eta Felix Iñiguez de Herediarekin batera.

- Puntuatu Pazkuetako programa.
- 1etik 10era 5, beti antzerakoak dira eta...
- Diru nahikoa izaten da jaietarako?
- Baietz uste dut.
- Aurtengorako ekarterik izan ez duzuen ekitaldirik?
- Antzerki lan edo musika talde ezagunen bat.
- Eta zergatik ez dago?
- Lokal egoki baten falta dagoelako.
- Zer gomendatuko zeniguke?
- Motor txikien erakustaldia, Ukraniako dantzataldea eta martxan zintaren aurkezpena.
- Jaiak egunez ala gauez?
- Gauez giro hobea izaten da.
- Txoznak ala tabernak?



"Jaietako programa aurreko urtekoen antzerakoa da. Antzerki lan edo musika talde ezagun bat botatzen dut faltan. Herriko ereserki berria San Martinekoa baino gehiago gustatzen zait. Musika eta bideo grabaketak atsegin ditut"

- Tabernak nahiago.
- Lehen ala oraingo jaiak?
- Lehen hobe. Orain ez da nobedade asko egoten...
- Brusarik janzen duzu jaietan?
- Ez, ez zait inoiz okurridu.
- Musika klasikoa ala martxosoa?
- Ambientearen arabera. Goizez klasikoa, gauez juergarakoa.
- Zein musiko atsegin zaizkizu?
- Sabina, Serrat...
- Eta konpositore gustokoenak?
- Asko dira. Beethoven, Haendel, Mozart, Wagner...
- San Martineko ereserkia ala Bergarako ereserki berria?
- Oraingoa asko gustatzen zait, ingeles ikutu bat dauka.
- Instrumento bat jotzekotan, zein aukeratuko zenuke?
- "Trombón de varas". Batzutan jotzen lagatzen didate...
- Hobby bat?
- Musika eta bideo grabazioak egitea.
- Pertxa elkartean denbora asko ematen duzu?
- Bai. Zetan? Txarlan edo kartetan.
- Sukaldari ona zara?
- Konpontzen naiz.
- Ondoen gertatzen duzuna?
- Makailaua edo legatza. Jan, berriz, denetik egiten dut.
- Udan zer?
- Valentziara noa.

POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78

Pepela
Ilepaindegia
Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi ☎ 76 15 09

ARREGUI, E.M.

ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Deban udan. Plaia eta Alameda alboan. ☎ 76 58 91 (gauetz).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Garaje bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

Garajea salgai Bolun. ☎ 76 05 86.

Garajea alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Estudioa alokatzen da Benidormen. ☎ 76 23 43.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisu bat alokatzen da San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua alokatzen da Arrasaten. ☎ 77 14 24.

Garajea salgai Boni Lascurainen. ☎ 76 15 64.

Pisua salgai Barrenkalen. ☎ 76 31 79.

Garajea salgai Oxirondo enparantzan. ☎ 76 47 67.

Pisua salgai Artekalen. ☎ 908-57 96 39.

DENETARIK

Kotxe merke bat erosiko nuke. ☎ 76 44 65 (Alex).

Fotometro bat salgai. ☎ 76 52 31 (gauetz).

Yamaha XT-E Trail motorra salgai. ☎ 76 03 40.

Strong bateria salgai. 20.000 pta. ☎ 76 32 39.

Trialeko Cota 349 motorra salgai. ☎ 76 18 96.

Karabana bat salgai. ☎ 76 46 97 (gauetz).

Graduatutako **betaurreko** marroi batzuk agertu dira Etxagi tabernan.

Altzariak salgai egoera onean. Ohea eta armario roperoa ☎ 76 07 87.

Donostian **pisu** bat osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 25 61 (Maite).

Mobylette Cady bat salgai. ☎ 76 54 73.

Estrainatu gabeko **kotxe**ko **bateria** salgai. 80 anperio. Prezioa: 9.500 pezeta. ☎ 76 35 10.

Seat Fura (SS-F) kotxea salgai. IAT pasatuta eta ondo zainduta. ☎ 76 10 39.

Txakur emea estaltzeko **doberman** har bat behar dut. ☎ 76 57 67.

Aluminiozko **Vitus** bizikleta salgai. Ia berria. Pedal automatikoa. ☎ 76 51 96.

LANA

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Frantsez eta ingeles klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

Etxez etxe **OHO**ko klaseak. Matematikak, ingeleza, euskara. ☎ 76 40 27.

Propaganda banatuko nuke. ☎ 76 17 84.

Ingeles batekin gaztelera eta ingeles klaseak aldatuko nituzke. ☎ 76 24 54.

Matematika eta Zientzietako klaseak. ☎ 76 06 50.

BBB, UBI eta **Lanbide Heziketako** klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 32 58 (Ana).

Zuzendaritza **Idazkaritza** ikasi ondoren lan egingo nuke. ☎ 76 11 32 (Marta).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

OHO eta zientzietako klaseak. ☎ 76 03 72 (Nerea).


23 urteko **mutil** batek astebukaeretan lan egingo luke. ☎ 76 64 65 (gauetz).

Aleman klaseak ematen ditut. ☎ 76 00 81 (Idoia).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

ARGAZKI ERAKUSKETA
Bergarako Txakur
Leren II Lasterketa



NAHIKARI Taberna
Masterreka, 20 ☎ 76 57 71

TXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

TABERNA
ZAHARRA

Jatetxea

bazkari eta
afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR



"Egan banandu zenetik konpetentzia haundia dago berbenetan baina lanik ez zaigu falta behintzat"

"Aritzetaekin batera ekainean aurkeztuko dugun Mozarten 'Misa brevis'a lantzen ari naiz orain"

XABIER LABAIEN, MUSIKARIA "LISKER" TALDEKOA

"Bidaia moduko batean gustatzen zaizkidan musikoen abestiak landu ditut"

Xabi Labaienek (31 urte) 17 bat urte daramatza musika munduan. Lisker taldeko partaide, orain bere lehen bakarreko lana aurkeztu du "Munduari bira" izenburupean.

- Zelan sortu da "Munduari bira"?

- Beti teklaua jotzen eta abesten ibiltzea gustatu izan zait. Sekuentziadorea deritzan aparailu bat erosi nuen eta aukera haundiak eman dizkit. Erritmo kaxa moduko bat da baina erritmoez gain pianoak, biolinak, tronpetak... danetik grabatu dezakezu. Horrekin jolasean betidanik gustatu izan zaizkidan abestiak biltzen zituen emanaldi bat prestatu nuen.

- Zeintzuk dira abesti horiek?

- Askok daude. Nina Hagenekin esate baterako ahotsa lantzen hasi nintzen. Hagenek errejistro oso altuak erabiltzen ditu berez opera abeslari formazioa bait dauka. Horrekin *falsetea* lantzen ikasi nuen eta orain, Liskerren, neuk egiten dut neskaren ahotsa. Sinatraren abestien



Xabi Labaien Pol-Polen eskeinitako "Munduari bira" emanaldian.

arregloak egiten dituen Quincy Jones ere asko interesatzen zait... Baina era guztietako musikan fijaszen naiz eta badira baita irratia edota telebistatik ateratako kanturak, Tom Waitzenak, Stanley Clark bajistarenak, fusio musika deritzana etabar luze bat. Iparramerika, Afrika edota Europako doinuak nahastu izan ditut eta bidaia moduko batean aurkeztu ditut.

- Taun-Taunekin ere kolaboratu duzu beren

"Beti teklaua jotzen eta abesten ibiltzea gustatu izan zait. Sekuentziadore bat erosi nuen eta horrek nahasketak egiteko aukera haundia eman dit"

lanen musika eginez.

- Bai. Horrelakoetan istorioaren giroa, akzioa eta guzti hori kontutan izan behar duzu, probak eta aldaketak eginez eta imajinak musikarekin dominatzea lortu arte. Oso lan interesgarria da.

- Zein musikarekin geratu zara gustorago?

- "Taun-Taun Show"-ekoa, oso musikala baitzen. Koreografia eta musikak garrantzi haundia zuten eta lana erreztu zitzaidan. Bestalde, musika ikasi izana fundamentalta izan da nere formazioan. Jesusa Enkotegirekin hasi nintzen ikasten eta orain gutxitan erakusten den pianoa joteko modua irakatsi zidan: eskuaren posizioa, kolpeoa, intentsitatea... Orain, edozein zailtasunen aurrean, oso lagungarria zait.

- Etorkizuneko asmorik?

- Orain ekainean aurkeztuko dugun Mozarten *Misa brevis*a lantzen ari naiz Aritzetaekin.

- Berbenetan ibiltzen zara Liskerrekin. Zer moduz?

- Eganen eszizioak konpetentzia haundia ekarri du baina lana ez zaigu falta.



komentarioa

Labegaraietako futbito txapelketako Ligako finalerako lehen taldearen izena badakigu, Madura alegia. Madurakoek 5 eta 2 irabazi zioten Kabia eta bete dute faborito paperarekin. Igandean arratsaldeko 5etan jakingo dugu beste finalistaren izena. Berau Arloteak-ek eta Angiozarrek jokatu duten partidutik irtengo da. Bi taldeak Kopako finalerako sailkatu dira eta partidu gogorra eta lehiatua izango dela ziurra da. Bestalde, lehenago adierazi bezala Arloteak-ek eta Angiozarrek lortu dute Kopako finalerako txartela, beste taldea Ufalak eta La Txupetak igandean arratsaldeko 6etatik aurrera jokatu duten partidutik irtengo da. Pronostiko guztiak Ufalaren aldekoak dira, baina futbitoan arbitroak azken txistukada jo arte ez da go ezer esaterik.



Argazkian, txapelketan parte hartu duten talde guztietako jokalariek.

The Blue Sisters nesken futbito txapelketako irabazlea

Olinpiada batzordeak antolatutako II. nesken futbito txapelketa pasa den asteburuan amaitu zen. Finalean The Blue Sisters-ek 4 eta 1 irabazi zion Ubinsti taldeari. Hirugarren postuan, berriz, Burdinezko Damak sailkatu dira The Best of The Best taldeari 2 eta 1 ira-

bazi ondoren. Txapelketan parte hartu zuten 8 taldeek izan zuten saria eta Ainhoa Larrañaga izan zen pitxitxia 7 golekin. Antolatzaileek txapelketak izan duen arrakasta azpimarratu dute eta esker-rak eman nahi dizkiete lagundu duten guztie, bereziki Ipintza institutuari.

EUSKAL MUSIKAREN BILDUMA

- Maiatzak 20 larunbata
- Maiatzak 24 asteazkena
- Maiatzak 27 larunbata
- Maiatzak 31 asteazkena
- Ekainak 3 larunbata
- Ekainak 7 asteazkena
- Ekainak 10 larunbata
- Ekainak 14 asteazkena
- Ekainak 17 larunbata
- Ekainak 21 asteazkena

Oskorri
B. Lertxundi
Mikel Laboa
Itoiz
Sorotan Bele
Hertzainak
Zarama
Lin Ton Taun
Su Ta Gar
Negu Gorriak



Asteazken eta larunbatero
Egunkaria rekin

*Egizu dantza
 Egunkariaren
 mertxan!!*

390 Ptas
 21,5 Lib.

Herriko igerilariak Altza eta Ordizian

Larunbat honetan eskolarteko Gipuzkoako txapelketaren barruan Antxon Maiztegi eta Amaia Otaegi izango dira Ordizian. Altzan, berriz, promesa mailako Gipuzkoako txapelketan Eneritz Muguruza, Eider Baltzategi, Eli Alberdi, Amaia Lazpiur, Kristina Pozo, Nagore Garzia, Jon Sasigain eta Gorka Eguren igerilariak izango dira.

Argazki lehiaketa

Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol argazki taldeak V. Kirol Argazkien Lehiaketa antolatu dute. Argazkiak aurkezteko azken eguna ekainaren 23a izango da Udal Kirol Zerbitzuaren bulegoetan. 10.000 pztatik 20.000 pzta.ra bitarteko sariak izango dira. Informazio gehiago nahi duenak Kirol Zerbitzura jo edo 779167 telefonora dei dezake.

Soraluzeren aurkako derbia herriko pelotariek

B.K.Eko pilotariak

iaz Herri Arteko txapelketan final erdietara heldu ziren eta aurtengo txapelketan ere bide berbera daramate. Eibarko taldea kanporatu ondoren bergarrek Soraluzeren aurka jokatuko dute final erdiëtarako txartelaren bila gaur gaueko 10etatik aurrera Soraluzeko frontoian. Reyes Azkoitia entrenatzaileak adierazi digunez, zail dute aurrera jarraitzea, baina ahaleginak egingo dituzte iazko emaitza onak errepikatzen. "Zozketaren aurretik Azkoitiaren aurka ez nuen nabi tokatzea eta Soraluze ere ez bazen tokatzen bohe. Baina aukerak ditugu aurrera jarraitzeko" esan digu Azkoitiak.

Oso parekatuta

Begarako taldean kadeetan Redondo eta Martinek, Jubeniletan Osa eta Gutierrezek eta




BKEko pelotariak finalerdietarako sailkatzea espero dute.

Seniorretan Samaniegok eta Oruesagastik jokatuko dute. Aurrez ikusita, txikiek partidua irabaztea zail izango duten bitartean, Seniorretan bi partidua irabazteko aukera handiak dituzte herritarrek. Kanporaketaren gako juniorrek jokatuko duten partiduan izango da. Izan ere bai plaentxiarrak eta bai bergararrak nahiko parekatuak

baitaude. Hurrengo ostiralean Bergaran jokatuko dira partidua. Bestalde, Elgetako lau t'erdiko txapelketan kadete mailan Martinek eta Iker Zabaletak aurrera jarraitzen dute.

23 urtez azpikoentzako txapelketan, aldiz, Oruesagasti, Gutierrez eta Muruamendiarazek jarraitzen dute txapelketan.



Pasa den Aste Santuan Pol-Polek Zurizara egindako irteera.

Bi eguneko mendi irteera

Alpino Gorla taldeak eta Pol-Pol mendizale elkarteak nagusientzako bi irteera antolatu dituzte. Maiatzaren 28an Izpegi-Iparla-Bidarrai irteera egingo dute egun guztirako goizeko 7,30etan frontoitik irteera. Izen ematea Pol-Poleko barran egin beharko da. Bestalde ekainaren 24 eta 25erako nagusientzako Picos de Europara irteera antolatu dute. Izen ematea Pol-Poleko bulegoan arratsaldeko 7etatik 8,30etara egin beharko da. Halaber Pol-Poleko gazte taldeak antolatuta maiatzaren 28an gazteen mendi irteera izango da Aiako Harrietara. Irteera goizeko 8,30etan Beheko Estazioan izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, arratsaldeko 7etatik 8,30etara Pol-Poleko bulegoetara hurbildu edota 76 48 51 telefonora deitu (Jon Berasategi).

KARTELDEGIA

► **Futbola**

Bergara-Zarautz

Preferente maila.

Larunbata, 17.30. Agorosin.

Bergara-Zarautz

Lehen mailako jubenilak.

Larunbata, 11.30. Ipintza.

Bergara-Axular

2. mailako jubenilak.

Igandea, 17.00. Ipintza.

► **Futbitoa**

Arloteak-Angiozar

Play Offak.

Igandea, 17.00. Kiroldegia.

Ufala-Los Txupeta

Kopa txapelketa.

Igandea, 18.00. Kiroldegia.

► **Eskubaloia**

Bergara-Hondarribia

Senior mutilak.

Igandea, 12.15.

► **Gimnasia**

eritnikoa

IV. Pentekostes txapelketa

Infantil, junior, jubenil eta

senior mailatako 26

neskatilla. Bergararik Amaia

Ortiz, Amaia Arrieta eta Ana

Sebal arituko dira.

Larunbata, 17.00. Kiroldegia.

► **Pelota**

I. Pentekostes Txapelketa

Gipuzkoako Pelota

Federazioak, Eskutaldea,

Bergarako Udala eta

B.K.E.ren laguntzarekin

afizionatuentzat antolatu

duen txapelketako

finalerdiak jokatuko dira

asteazkenan. Aritz-Galarza,

Muruamendiaraz-Rai, Artola-

De Luz eta Berasaluze VII-

Korta dira sailkatu diren

bikoteak.

Asteazkena, 19.30.

Udal pelotalekua.

Igor Urisabel

Saskibaloian elitearen atarian

Igor Urisabelek 21 urte ditu eta Aranzadi Ikastolako taldean saskibaloian lehen pausuak egin ondoren duela 4 urte Arrasatera joan zen. Azken urtean Arrasateko Maltzaga Urbina taldearekin Liga EBAn (saskibaloia-aren estatu mailako 2. maila) jokatze-ko aukera izan du.

- Aurtengo esperientzia zela baloratzen duzu?

- Talde mailan urtea ez da ondo joan, mailari eustea lortu dugun arren. Liga EBA oso kategoria gogorra da bertan dabil-tzan taldeak maila oso al-tua baitaukate. Gainera bidaia asko egin behar izan ditugu, beti kanpoan izan gara, bideo asko ikusi... Pertsonalki ez zait ondo joan urtea aukera gutxi izan baititut jokatze-ko. Asteazken zehar lau egunetan bi orduz entrenatzen genuen eta ez jokatze-ko oso gogorra da.

- Hala ere edozeinek ez du maila horretan jokatze-ko aukerarik...

- Bai, aukera hau ez da beti izaten eta esperientzia hartze-ko ondo dator. Kategorian danetik dago, ACBn jokatutako jokalarien aurka jokatu izan dugu eta horrez gain talde handien filialek ere jokari gazte oso onak dituzte.

- Horrenbeste ordu entrenatzen jardun ondoren eta jokari amerikarren aurka jokatuz zure jokatze-ko eran ere hobetuko zenuen ez?

- Partidu gutxi jokatu ditut eta orduan ez duzu ikusten. Maila baxuagoko taldeen aurka lagunarte-ko partiduak jokatu izan ditugu eta hor jokatu izan dut eta nahiko gaizki ir-ten zaizkit gauzak. Oso desberdina da entrena-tzea edo partidu bat joka-tzea. Erritmo falta igarri dut.

- Eman dizkiguzun erantzunengatik nahi-ko lur jota ikusten zai-tugu. Ba al duzu jarrai-tze-ko asmorik?


- Hori taldeko ardura-dunek esan beharko du-te, baina nik nahi dudana

gauza bakarra jokatzea da.

- Bergarara itzultze-ko prest?

- Ez banaiz bueltatzen hobeto, horrek maila handiagoko talde batean izango naizela esan nahi duelako. Baina ez zait batere inporta itzultzea. - Zer sentitzen da 2m eta 5 zmk eta 100 ki-lotik gorako amerikar baten aurka jokatze-ko?

- Beti ematen dute errespetua, baina eusten saiatu behar zara, bultza eginez, egurra emanez... kontrakoaren amerikarra edonola gelditu behar da.



1.98 zentimetro neurtzen ditu eta pibot postuan jokatzen du.

"Ez zait ondo joan urtea, oso aukera gutxi izan baitut nere jokoa erakusteko"



Oin ddala 21 urte

Astebukaera honetan, lagun biri okurriduta, erretratuko kuadrillakuk lelungo kintadia ospatu bihar dabela eta, erretratu hau bialdu doskue. Erretratua San Martin ikastetxeko gimnasioan etarata dago, mutillak 11 urte zittuenian, hau da, 6. maillan.

Ezkerretik eskumara:

Atzenengo ilaran: Jabier Moreno, Carlos Cid, Jose Jabier Tarres, Roberto Elorza, Jose Luis Martinez, Jose Antonio Arenaza, Julian Arzelus, Jose Luis Errarte, Migel Anjel Larrañaga, Nartxi Azkargorta, German Balanzategi, Esteban Karasatorre.

Hirugarren ilaran: Iñigo Mujika, Ignacio Moreno, "Burgi", Santiago Olejua, Hipolito Poza, Iñaki Acebo, Juan Carlos Barriobero "Barri", J.L. Gonzalez, Iñaki Belategi, Jose Antonio Mulas, Luis Rodriguez "Pito", Mikel Murgizu, Jose Carlos Montero, German Lazkano.

Bigarren ilaran: Jose Antonio Dovao, Iokin Laskurain, Mikel Larrañaga, Jose Jabier Plazaola, German Zangitu, Jesus Mari Oregi, Fernando Santamaria, Ion Ander Irureta, Martin Etxaniz, Iñaki Berasategi, Iosu Arteaga, Aitor Arakistain "Popi", Alberto Garai.

Aurrian: Martin Garitano, Carlos Albusua, Martin Larrañaga, Jose Ignacio Mujika, Jesus M. Urzelai "Txako", Jose Ignacio Galarraga, Jose Arregi, Jabier Herrero, Pedro Luis Gutierrez, Iñigo Idarreta.

Felipe Iñarra

Erretratua: Mikel Larrañaga


Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

KOXKA



Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89

- Gozokiak
- Fruitu lehorrak
- Jaunartze eta jaietarako enkarguak

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTITAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

